


anaitasuna

1978.EKO MAIATZAREN 15EKOA - 363 - ZENBAKIA 50 PTA.

8

KONSTITUZIO PROIEKTUAREN ANALISIA(2)

ORMEN KONTRAKO BAKEA



Has zaitetz gutaz bestela pentsatzen.

Gurekin harremanetan ari diren guztiei gauzak ikusteko beste era bat eskaini nahi diegu, tratuetarako modu berri bat, eta zerbitzu osoagoa ere bai. Geroak jadanik orain egiten dizkigun eskabideetara egokitu nahi dugu geure jarrera. Horrexegatik geure buruari aurreranzko proiektio bat jarri diogu helburutzat, orain arteko aurrerabidean izan garen baino hobeak izan gaitezen. Guk guztiontzat hobe izango den etorkizuna moldatzen segitu nahi dugu, eta hori gaurdanik egiten hasi beharra dagoela ongiegi dakigu. Geroa hementxe dago eta.



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

geroa hementxe dago

AURKIBIDEA

- 3 Editoriala
- 4 Rikardo Arregiren omenez
- 6 Bresteko Itun historikoa
- 8 Iparraldeko ikastolak
- 10 KASen Ideologiaz
- 13 Arrazakeriak eta beste
- 15 Erijihoa hirugarren lekuan
- 16 Frantses eta espainol poliziak maitemindurik.
- 17 Iruineko tirote baten kronologia
- 18 Ohar laburrak
- 19 Estatua
- 23 Ipuina
- 25 Internazionala
- 28 Euskal Unibertsitatea eta arkitektura
- 30 Prentsa oharrak
- 32 Ekonomi krisisa eta emakumea
- 35 Gramatika
- 36 Postak
- 37 Gurutzegrama
- 38 Zilarrezko krabelinak. Kaleko.


ANAITASUNA

ZUZENDARITZA, IDAZKARITZA, ETA LANKIDEAK: J. Arzelus, T. Trifol, J. Llerandi, X. Kintana, M. Aldana, X. Gereño, J. M. Torrealdai, M. Alvarez, A. Olarzabal (Gipuzkoa), L. Zabaleta (Araba eta Nafarroa), M. Lanhatoua (Iparralde), X. Arzelus (Bizkaia), J. R. Etxebarria, P. Agirrebaltzategi, A. Eguzkitza, X. Mendiguren, I. Azkoaga, A. Loroño, J. Mendizabal, J. Azurmendi, J. Iturbe, B. Atxaga, I. Urtasun, M. Haranburu, M. Lasa, I. Mendiguren, Jon Etxebarri, R. Ordorika, E. Enziondo, J. L. Alvarez, S. Laffite, M. Pagola, J. Idigoras, J. Agirreazkoanaga, K. Anakabe, E. Martin, J. Aurre.

MAKETAPENA: F. Garcia.
FOTOGRAFIA: Susperregi.
KOMIKILARIA: A. Olariaga.
PUBLIZITATEA ETA HARPIDETZA: J. Idigoras, A. Uria, I. Apraiz, A. E. Mazaquin.
IDAZKARITZA, ADMINISTRAZIOA ETA HARPIDETZA: Zabalbide 68-BILBO. Tf: 4335800/7/8/9.
MOLDIZTEGIA: Iparragirre S. A. Carretera de Galdácano s/n. BILBO.

OHARKIZUNA

Anaitasuna ez da ardurarako artikuluen edukiek duketen erantzunkizunaz. Beronek ez du esan nahi ez alde ez aurka dagoenik. Bestalde, beregain hartuko du editorialearen eta bere ize-nez izenpetutako artikuluen erantzunkizuna, berau baita (hola dugu ulertzen) bere ideologi nidoa.



ORMEN KONTRAKO BAKEA

Bakearen aldeko indarrak ez dira mutu geratu azken aste honetan. Gorteetan Letamendiaren zuzenketari ezetz biribila ematen diote Espai-

nolek. Autodeterminazioa, amnistia, gure aberria, hizkuntza, kultura eta nazioa ez da oinharritzen, ez da bakeak eskatzen duen tratamenduan sartzen. Hor geratu ziren Patxiren hitzak airean eta bitartean gorrotoa eta bakebide harmatuak lurrean. Bakoitzak besteari bere bakea inposatu nahi dio. Euskal Herriaren bakean Espainiako hilherrietako bakea ezartzeko bide oro prestatzen ari da Madrilgo gobernua.

Bakea lortzeko gure gudariak, beraien terroristak, hiltzen dituzte, asasinatzen dituzte, orma baten kontra. Poztasunez beterik, lasai, garaipenaren zentzua hartuz. Ez dago ezertaz harritzekorik. Berdin dagigu guk beraiekin. ETakoek zibilak eta beste asasinatzen dituzte, edo abertzalea izanik, bakearen alde hiltzen dituzte. "Vis pace para bellum" zioen aintzinako esaerak. Bakea nahi eta gerra prestatu. Eta bakea, gurea eta haiena ez da berdina.

Gure bakea Euskal Herriko nortasunean, langileriaren libertatean finkatzen da. Haiena aldiz, Espainiako nazionalismoan, kapitalen aginpean oinharritzen da. Hitzarmena, paktua, garbi geratu da alde bietatik, baina baten eta besteren helburuak berdin segitzen dira. Gu, zenbait kasutarako hitzaren posibilitatea lortu dugu, ez dezagun beraz haiek duten harma hori gal. Bakea, gurea, galduko litzateke, eta ormaren kontrako bakea nagusitu.



RIKARDO ARREGI KULTURBERPIZTAILE KLABEA

Bi mahai inguru antolatu dira Andoaingo herrian Rikardo Arregiren omenez, goi mailako euskal idazle zerrenda lekuko.

Joan Mari Torrealdai izan da bi mahai inguruen antolatzaile eta zuzendari apartekoa. Apirilak 4ko mahaiari Torrealdai-ren eskutik Begoña Arregi (Rikardoren arreba), Telesforo Monzon, Ramuntxo Klanbong, Txillardeggi, Pierre Xarriton, Jesus Mari Eizmendi, Andoni Sagarna, Imanol Laspieur, Martin Ugalde eta Karlos Santamaria mintzatu ziren. Manuel Lekuonak, Ibon Sarasolak eta Ramon Saizarbitoriak bidalitako eskutitzak irakurri ziren.

Lehenago mahai borobil honetan Rikardoren pertsonaia, lanak eta ekintza nagusiak aztertu ziren. Apirilak 5eko bigarren mahai inguruan, Torrealdaireren zuzendaritzapean, Juan San Martin, Miren Jone Azurza, Iñaki Behobide, Xabier Lete eta Mikel Ugalde aritu ziren. Andu Lertxundi eta Mikel Lasaren eskutitzak ere irakurri ziren. Mahaikide guztiak euskal idazle eta intelektual gorenetakoak izanez gainera, Rikardo nolabait ere ezagutu zuten idazle lagunak dira. Eta bakoitzak bere ikuspegitik aztertu du Rikardoren nortasuna eta bere lana.

Rikardoren bizitza laburra baina iraultzailea hitz gutxitan laburtuko dut. 1942.ean Andoainen jaiotako eta seminarioan zenbait urte ikasi ondoren Ekonomi Zientziari ere heldu zion ikasten. 1964.ean euskaltzain laguntzaile izendatzen du Euskaltzaindiak eta Zeruko Argian kazetari bezala ekiten dio, eta entseulari bezala Jakin aldizkarian. 1966.ean alfabetatze kanpaina sortzen du eta Euskal Idazleen Elkartearen bultzatzen. Ondoren marinaran iragaten duen soldaduska luzea bere ideologia sakontzeko eta entseiu batzuekin argitzen probetxatzen du. 1969.ean, Euskaltzaindiko Batzarre batera zihoala, Mendanorri istripu egin eta 27 urtez hiltzen da.

ALFABETATZEKO KANPAINA

Arregik, 1964. inguruko Euskal Herriaren analfabetokeria eta egoera deseuskaldundua sakonki aztertuz, eman zion hasera alfabetatze kanpainari. Euskara galten, eta zekitenak euskal analfabetoak. Baina ez zegoen ez libururik, ez testurik, ez mediorik, eta apunte batzuekin fotokopiatuz ekin zioten alfabetatzeko talde batzuk. Euskal kultura herrikoitu behar zen euskara eguneroko komunikabide baliozko batean ezartzeko. Alfabetatzeko taldeak ugarituz zihoazen heinean, Euskaltzaindia berak ofizialki babestu zuen alfabetatze kanpaina, bere arduradun eta eragile Rikardo euskaltzain berria izendatuz.

Geroztik alfabetatze kanpainak, bere gorabehera eta guzi, arrakasta handia izan du Euskal Herrian, eta egun 40.000 ba omen dira euskalduntzen-alfabetatzen ari direnak.

RIKARDOREN IDAZLANAK

Rikardok kazetaritza eta entseularitza berri bat urratzen du. Entseularen "Jakin" aldizkarian atera zituen, batik bat, oraindik gogoangarriak ditugu "Ezker-tiar Berriak", edo "Euskaldunon Jainkoa hil behar dugu" lan iraultzaileak. Intelektual berrizale hark erreprotxe aski jasotzen orduan, zegoeneko euskal kultura zaharkitua ordezkaritza batzurenatik (Labayan, Basarri, e.a.)

Kazetaritza berri bati hasera emanez, Zeruko Argian 322 artikulua behintzat idatzi zituen, eta "Nazio arteko unea" sailarekin Zeruko Argiari informaketa orokor profesionaldu bat ezarri zion, Miren Jone Azurzak mahaiari

aipatu bezala. Geroztik, beste lagun batzurekin, "Gazte naiz" sailarekin berriz, arrakasta handia sortu zuen euskal belaunaldi berrian. Anaitasunan ere 7 bat lantxo argitaratu zituen.

Mahaikoak bat zetozen Rikardo Arregiren idazlanak baloraterakoan. Halegia, Rikardok euskara praktikoa egiten du, barrokismorik gabe, euskara zuzena. Bere jokera aldrebesa edo traketsa zen. Rikardo ez zen literatu, gidari eta pedagogo baizik.

"Funtzionaltasun" baten zerbitzuan jarri zuen bere euskara eta kazetaritza. Funtzionaltasun hori jarraituz, euskara batuari ikusgarritzako bultzada eman zion, artean hainbeste etsai zituen euskara batuaren hastapenak.


Itxiki Behobidek aipatu bezala, kazetaritzan legez "Liburugintzan" ere asmatzaile eta eragile izan omen zen. Liburu txiki, biziak, errazak, nahiz jatorrizkoak nahiz euskarara itzuliak argitaratzeko egin zituen planteiamenduak esker sortu zen "Lur" liburugintza.

RIKARDOREN IDEIOLOGIA BERRITZAILEA

Bai euskara baturako literaturak, bai kultur berpiztaile edo gizarte berritzaileko Rikardoren bultzadak arrakasta handia izan zuen orain 12 urte, horrela belaunaldi berri bat urratuz. Belaunaldi honetako hiru idazle nagusi izendatuko nituzke, hau da, G. Aresti, Txillardegia eta Rikardo Arregi. Rikardo ez zen beste biak bezain poeta edo literatua, baina bai pentsalari eta politika zentzu handiko gizona. Rikardo, batez ere, besteak ez bezalako kulturberritzearen eragile, gidari eta antolatzaile zen. Berak politika baino gehiago kultur politikak bat urratu bide zuen alfabetatze kanpainaz, kazetaritza edo entseiu bidez, editorialgintza berri bat eraginez, eta herri herriko hitzaldiak bide, frankismoaren garaieko klandestinitatean euskal kultur herriko baterako mugimendua bultzatuz. Bere adiskide Saizarbitoriak agertu duenez begi luzeko politikoa zen, inoiz parlamentaritza bidetik ere jo beharko zela ere aipatua baitzuen.

Azterlari ona, eta politika zentzu handikoa, zernahi gerta munduan, ba zekien Euskal Herriari nola egokitu. Mundu guziko korrante guzian jabe izaki, sintesiztaile sakona, eta gauzak bere tokian egokitzen zekiena. "Biafra"ko gertaeraz ari denean, adibidez, Euskal Herriaren azterketa egiten du, eta honetazko zenbait ondorio ateratzen. Edo errusoak Txekoslovakian bortxaz sartzeak, zenbait lanetan nabarmentzen zaienez, erakutsi zorrotza itsatsi zion.

Garai hartako abertzaletasunaren desfasea aztertuz, euskal mito eta topiko zaharrak, "euskaldun fededun", e. a. lausi beharrez ekin zuen. Ez gizona eta ez kultura ez baitaiteke bere hortan buka edo hel, beti ere dinamikotasun baten barnean desarrolatu beharrez. Ez zuen etiketa politikorik. "Ortodoxia guztiekin nazkatuta negok" idazten zion Joxe Azurmendi. Marxista kritikoa bat dela esan daiteke. "Zenbat eta marxismoa gehiago irakurri, orduan eta zabalago bilakatzen zuen gizona, historia eta kultura". Halere, gizonaren independentsia ez zuen sekula galdu. Bere kristautasuna, berriz, ez zen batere konformista, eta katolikotasunaren topikoak eta ohitura zaharkituak zorrozki salatu zituen. Rikardoren Jainkoa, Xabier Letek seriooki aztertu dionez, galdera eta itxarpena bat da. Ez da jokabide sozialen garantia bat. Beraz, kristautasuna eta marxismoa ikuspegi kritikoa batez uztarturik iradun zuen. Rikardoren alternatiba sozial orokorra baitzen. Sozialista humanista iraultzailea, edo geroztikagoko ezker abertzaileen aitzindari izan zela aipatu beharko litzateke.



EZ GAITU INORK ASKATUKO

Herri Batasuna (Unidad popular) da dudarik gabe, euskal ezker abertzale bat egiteko lehen pauso serio eta eraginkorra.

Euskal ezkerak izan dituen ezaugarri historikoak, hots, protagonismoa eta barne zatiketa, gaingidu dituzta bertan biltzen diren alderdiak. Honela eginez, helburu taktiko estrategiko zehatz bat lortzeko bidean abiatu dira. Batasun honetatik jarraituz eta protagonismo berezituak zailago ikusiko dira hemendik aurrera. Alderdiak gal zezaketena estrategia batek irabazi. Herri Batasunak euskal ezker abertzale barruan kontradizio asko gaingidu du, beraz horixe berbera dugu: garrantzi handiko saio politikoa bat. Herri batasunean barne, anitz independente eta oinarrizko militanteek eskatzen zutena kokatzen da. Ba zen ordua. Orain herri honetako maila guztietan, batera eta protagonismoak utzirik, ikuspuntu iraultzaile eta abertzale batetik, parte hartzeko garaia heldu zaigu. Ez da, ez guttiago ere, miratzen ditugun beste batzuek gura arazoak soluzionatzeko ordua. ETARI asko zor zaio, baina ETAK erakunde harmatu bat osotzen du. Beraz, bere metodoa eta jarrera ez da alderdi politikoa batana. Bion artean ezberdintasun nabariak daude. Nabaritasun eta ezberdintasun honetatik jabetzen ez dena daltonismo CIATikoaz jota dagoela esan beharko dugu. Eguneroko burrukak mesfidatzen dena Euskal Herria lotsagabeki abandonatzen du. Azken batez, burjesiak lortu nahi duena zera da, abangoardien zatiketa, herri burruken deuseztatzea eta beraz lortzeko desmoralizapenean ipini dute asmoa. Masen burrukak batzuren menpean soilki uztea da batez ere burjesiari komeni zaiona. Zaila da benetan, egunero, astero, urtero, lan iraultzaile bat aurrera eramatea. Askoz errazago baita, norberak bere burua superiraultzailatzat hartu eta betiko biharkoz, iraultza etorriko zaigula esan eta sinestea. Kontsumozko gizarteotan nork sinets dezake iraultza biharko dela? Eta biharko bada, zer egiten dute lozorroan? "ETA herria zurekin" ondo dagoke, ederki dago kasu askotan, baina iraultza ez da oihuz eta garrasiz egiten, ez da tabernaketa ele meletan murgiltzen eta prestatzen, ez guttiago ere protagonismo eta kontrakomunikatuetan zuzentzen. Iraultza, eguneroko fruitua da, militanteen praktikak osotzen du iraultza. "ETA herria zurekin", baina gainerakoek har dezatela metraileta, "ETA herria zurekin" lan zehatz bat egiteko gaie ez naizalako. "ETA herria zurekin" asteburuan bidaiak eta bakea maite ditudalako. "ETA herria zurekin" zeren guzti hau gaizki baitago, zeren politikariak lotsagabeko batzuek besterik ez baitira, zeren Jaungoikorik ez baitago jadanik eta beste bat aurkitu beharrean ETA topatu dugu, baina ETAK ez gaitu askatuko gu askatzen ez bagara.

Nahiz eta iraultza biharko ez izatea, herri honetan daukagun egoera soziologiko hau ez da Europako gainerako herrietan modu berdinez ematen. Egoera honetatik probetxurik ez ateratzea benetako krimena da. Protagonismoak, ezin ikusiak, esamesanek, ikuspuntu superiraultzaileak, piktura bidal dezakete euskal ezker guztia. Politika sakabanatu eta arin batek euskal ezkeraren burua hil egingen du eta ondorioz, jakina, ETAREN isolamendua probokatuko zukeen. Horregatik, gehien kezkatzen zaiguna Leninek eta historiari erakusten digun zera da: Komunismoaren haurgaitotasunak hil egin gaitzake.

BREST-EKO ITUN HISTORIKOA



Europa kapitalista elkartzen ari zai-gula, aspalditik ba dakigu. Jakina, ez dago mugarik diruarentzat. Baina ez dira langileak ere oharpen ilun honetan mugatzen eta nabari da elkartasun berri bati buruz ba goazela. Hau da, herri zapalduen elkartasuna, langileena eta sozialismoarena. Helburu hori mamitu eta sakondu nahian sortu zaigu 1974.ean "Charte de Brest" edo Bresteko Ituna. Hain zuzen, "Europa sartaldean koloniasismoaren aurkako Borrokaren elkartasuna" nahi luke izan. Esan beharrik ez, elkartasun honen garrantzia guztiz indartsua izan litekeela. Elkartasun honek bere oin-harriak ez dauzka ideologia mailan. Batipat, helburu oso sakon hau dauka: populu zapalduen askatzea sozialismo iraultzaren bitartez. Sozialismo tanke-ra honen inguruan, herrialde eta populu zapaldu asko elkartzen zaizkigu. Nor dira populu hauk?

BRESTEKO AGIRIAREN POPULUAK

Hauk dira:

- C.G. "Cymru Goch" edo "Pays de Galle" ingeles inperialismoaren zapalkuntza jasaiten duena.
- E.C.T.: *Esquerra Catalana dels Treballadors*.
- HASI-EHAS: *Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea*.
- PSAN Provisional: *Partit Sozialista d'Alliberament National*.
- SFWP: *Sinn Fein Workers Party (Irlandako IRA ofiziala)*.
- UDB: *Unvaniezh Demokratiek Breizh* (Bretainiakoa).
- UPG: *Union do Pobo Galego*.
- Okzitania.
- Val d'Aost (Italiakoa).
- P.S.A.: *Andalusiako Alderdi Sozialista*.
- Zimbabwe (Zimbabweko populuaren alderdia, Hego Afrikakoa, Smith-en zapalkuntza jasaiten

- Txileko alderdi sozialistaren ordezkari bat.

Hauk denok dira populu zapalduen benetako internazionala. Ez gabiltza hemen teoria mailako internazionalismoan baina borroka mailakoan eta helburu berdinekoan. Inperialismoaren suntsitzea, populuen askatzea eta sozialismoaren egarri berdina. Dakusagu, beraz, sozialismoa eta abertzale-tasuna ez direla apartatzen, ez dira ebakitzen populu bakoitzaren berezitasuna eta internazionalismoaren berdintasuna. Oraindik populu multzo ederra dabil itun honetan murgilduta eta gaurtik ba dakigu etorkizunari dagokionez gehiago baizik ez direla izanen. Hargatik, egitura honen behar handia, lotura eta indarra guztiok ikusten ditugu. Komeni da honen zabal-tzea eta ekintzaile bihurtzea.

ZER ESAN DIGUTE

Esan diren guztien agertzea luzeegi liteke eta hargatik mugatu beharko dugu geure salaketa. Adibidez, emanen ditugu bakar bakarrik zenbait alderdiren eritziak eta horik baizik ez.

VAL D'AOST-EKO ALDERDIA

"Gure populuak Italiaren eta Frantziaren inperialismoaren gogortasuna jasan behar du. Hori dela eta, gure herria muga batek zatitzen digu bi aldeetara, frantses aldean, mendiaren kolonialismoa guztiz nabari da, eta Italia aldean autonomia zerbait ba daukagu. Baina autonomia hori itzalgailu eta erantzun faltsu bat baizik ez dago. Gainera, Italiako egituretan oztopo izugarri bat ere, eta hori da benetako egitura zentralista. Bistan da, PC itali-anoa eta "Demokrazia Italiano" zentralismoaren alde dabilta, hau sendotu baizik ez dute egin nahi..."



Internazional berri bat. Herri zapalduak.

THOMAS MAC GUILLAN IRLANDESAK:

"Irlandaren egoera guztiz da larria. Batipat, ekonomi mailan. Langabezia % 6ez goititu digute eta lehen materia mineralak amerikanoek baliatuko dituzte. Adibidez, gaurkoan, amerikanoen inbertibideek gainditu dituzte irlandes inbertibideak. Hargatik, nabari da amerikanoek apailatzen digutela ingeles nazioaren kanporatzea, baina berak sartzegatik. Beraz, amerikanoen inperialismoa oinharritzen ari zaigu. Txarrago deritzoguna oraindik, jendea bera pro-amerikanoa da, uste baitute amerikanoak sortzez (edo arbasoen sustraiengandik) irlandesak direla..."

ZIMBABWE-KO FRONTE NAZIONALISTA (populu hau Smith arrazistaren gogorkeriaren pean dago.):

"Elkartasunak ez du filantropiazko egitura bat izan behar baina bai benetako ekintzaren elkartasuna. Gure populuak jasaiten ditu arrazismoa, tortura eta gartzela. Ez daukagu zuri berdineko bozka-eskubiderik, ez ostu berdinek, ez soldata berdinek, ez ikastetxe berdinek (...). Era asko ditu gure borrokak eta gaur nabari da, inoiz baino argiago, gizon bakoitzak, emazte bakoitzak, sartu behar duela herriaren borrokan, ezen borroka ez baita pertsona bereizi edo elite baten gauza

(...). Gainera, hastapen batean ez genuen ulertzen zergatik gizon zuri batzuk laguntza emanen ziguten beste gizon zuri batzuren aurkarako borrokan. Gaur erantzuna argi dago: gure borroka zuzena delakotz! Poliki poliki ulertu dugu iraultzan gabiltzala eta iraultzak egitura inperialistaren aldaketa osoa eskatzen duela. Geure herriaren politika indarra eta ekonomiar. kontrola hartuko eta zuzenduko ditugu. Populuaren kontrola gauza guztietan."

HASI ETA EHAS ALDERDIAK

HASIkoak azaldu du nola Euskal Herriak diktaduraren gogorkeria jasan duen, eta pairatu dituen aro horietatik datorrela, gaur sozial demokrazia burjes batetan sartzeko. Gainera, prozesu edo mugimendu horrek darama Europa mailako kapitalismora, Europa kapitalistaren arartekotasunaren bidez. Salatu da ere, Aldalur-Larrañagaren "sekuestrazioa" eta honen Espainiari ematea. Horretan argi eta garbi dago, gaur Estatu kapitalisten "anti-terrorismoa" Europa mailan zehar zabaltzen zaigula. Ba dakigu, gainera, nazio inperialistek elkarrarteko akordio anti-terrorista hori izenpetu dutela. Horrela, Europako nazio guztiak antolamendu eta baimen horri atxikiak dira. Helburu guztiz garrantzitsu bat: populu zapalduen arteko elkartasuna aurreratu eta sakondu.

HERRI ZAPALDUEN ITUNA


Bretainian bertan, Iparraldeak dituen problema berdinak dira: langabezia, gazteen Parisera joatea, lur saltzeak, kulturaren hiltzoria eta frantses gobernuaren inperialismo gogorra, baita zentralismo ezinago pisua

Brest-eko biltzarren horretatik zer atera daiteke? Lehen puntu bat eta guztiz itxarongarria, eta hori da elkartasuna. Puntu historikoa dela Bresteko ituna, ez da dudarik. Historikoa esaten dugu, ezen gaur kapitalistak baizik ez zaizkigulakotz elkartzen, eta jakina, beren interesen defendatzeko. Beraz, huts eta eskas hori, nolabait bete nahiz sortu da Herri Zapalduen Elkartasuna. Ez da oraindik gauza egina baina egitura hor dago, elkarriketa ere bai eta zapalduak hor dabilta. Europa inperialistak bere parlamentua aukeratuko duen une honetan, horrelako populu zapalduen itun eta plataforma bat beharrezkoa zegoen.

Sindikalismoaren borroka nazio bakoitzaren mugetan neurtzen zaigu eta frontera administratiboak hor daude langileen bereizgarri. Europa komunak hori kenduko eta aldatuko digula ez pentsa, kapitalaren pasabideak baizik ez ditu erraztuko. Diruaren internazionalismoaren izenean, bistan da. Hutsune horri nahi dio erantzun Bresteko itunak. Horregatik da historikoa. 7



DIRUA BEHAR DUGU SEASKARI ERANTZUN



Urte honen hasieran, X Hazparneko Herri batzarrak, azterketa bat plazartu zigan. Galderak hauk izan ziren: Nahi zenukea euskara ikasi irakurtzen, idazten eta mintzatzen? Erantzuna: % 67, 79k beren baietza eman zieten. Esan behar da azterketa oinharritzen eta mugatzen zela 17 eta 35 urteetako gizon-emakumeengan Beraz, jende gazteengan eta herriaren itxaropenean.

Bigarren urratsa izan zen administralgoarena. Hain zuzen, joan den Hazilean elkartu zitzaigun Lapurdiko auzapezen elkarteak. Denek, eskuineko eta ezkerrekoek aho batez derasaten "euskara behar da zaindu, lagundu eta maila ofizial batetara jaso!" Harrigarriena, jaun prefetak berak (gubernuren lehen poliziak), euskaraz egin zigan bere mintzaldia. Labaguerie jaunak ere, uste izan zuen "Izpiritu saindua jaitsia zela MONFRAIX prefetaren gainera". Oi mirakulu espantarra esaten digu gure elizetako kantu zaharrenen batek. Hirugarren urratsa izan da Mazurie jaun famatuak Soud-Ouest kazetari eman duen elkarrizketa (27/1/78). Esaten zigan "luzaz eta luzaz mintzaira etnikoek jasan dute "Jakobinismoaren" borroka (...) eta XX belaunaldirarte gizona preziatua zen frantses mintzairaren jakintasunetik edo jabetasunetik. Frantses irakuntzan mintzaira etnikoek behar dute beren lekua, beren leku guztia, frantses aberriarenak direlako", "les langues ethniques doivent avoir leur place, toute leur place, elles font partie d'un PATRIMOINE NATIONAL".

Ba dakigu ere jaun NAZIONALISTA honek zenbat saio eta saio eraiki dizkigun euskara trabatu beharrean. Guztiok oroit gara oraino Donapaleuko ikastolaren arazoak. Alde batetik euskara ofizializatu behar dela, lagundu, aurreratu eta bestetik izorraldiak, otsojokoak. MONFRAIX euskaraz eta Mazurie dena ele zuri. Hots, biak elkarren irudi. Euskaldunok ba dakigu mirakulu edo mirarietan ez dugula, gehiago sinesten, ekintzek baizik ez gaituzte konbentziaraziko. Eta oraino inork ezin esan zein azpipentsaldirekin, zein azpihelbururekin eginak diren ekintzak ere. Dena dela, arbola bere fruituetatik jua dezagun eta entzun SEASKA ikastolen elkarteak zer



Ez dugu amorerik eman!

SEASKA ETA POPULUAREN GAL- DEAK

Hazparneko gazteek euskara ikasi nahi dutela esan dugu baina ez da nahi bakarrik Hazpandarrena. Iparraldeko aitama askorena da. Berauen haurrek euskara jakitea eta erabiltzea nahi dute, ezin uka hau izan behar litzatekeela euskaldun bakoitzaren eginbehar premiatsuena. Lehenago ohituraz egiten genuena, gaur konbikzioz egin behar dugu. Horretarako sortu genituen ikastolak, populuak sortu. Hain zuzen, beharrezko da konturatzea ikastolarik ez zigula frantses irakaskuntzak, ez prefetak, ez Mazurik sortu (nahiz gaurkoan ari zaizkigun beren haztapar beltza ikastoletan sartu beharrez, edo guttienez sartzeko ametsetan. Benetako inperialismoa! Geuk euskaldunok zain ditzagun geure borrokaren fruitua!...).

Baina, gubernukeriak hârma asko dauzka. Lehena, bortitzena (ikastolaren debekatzea) eta bigarrena maltzurrena, azpijokoa, hain zuzen, dirurarena. Guztiok dakigu eta egun guztiez dakusagu errealismoaren lege hotza topatzen dugula. Administrazioak euskara behar duela derasa baina dirurik ez eman nahi. Horretan nabari al da ikastoletan dabilzan haurrak ez direla osoki frantsesak? Frantsesaren inperialismoaren indarrez? Egia da! Ez gara izpirik ere frantsesak. Eta, hain zuzen, hori berori dakusa frantses irakaskuntzak eta frantses gobernuak. Hargatik indarra, bere era guztietan, beharrezko zaio. Orduan, euskaldunok, alderantziz, populuaren indarra beharko bere era guztietara. Gaurkoan, Iparraldearentzat behintzat eta SEASKA arazoari dagokionez dirua behar dugu.

HEGOALDEARI DEI EGITEN DA

Iparraldea Euskadi da. Bere esan eta bere baserrietan euskalduntasuna dauka. Jakina ez Hegoaldekoa bezalako baina euskalduntasuna halere. Euskal Herriaren % 90 da, beraz, inork ezin uka indar mamitsuena eta dinamika handiena hor dagoela. Horregatik SEASKAren diru laguntza galde honek nahi du Euskal Herri osorako izan. Batipat, euskal Hegoalderako.

Ekintzaren lege hotza? Parte bai segurik bai, baina ezin da bestela! Elkartasunaren lege sakona? Egia da. Eta nola daiteke bestela? Aberri bat bakarra da. Aberri bat bakarra inperialismo guztien aurka.

Apirilaren 17an, SEASKAk eman digu bere arazoan berri. Joan den urtean mobilizazio berdina eskatu zuen Iparraldekoengandik eta aurten berregitera behartua da. Bere kanpaina izendatzen du "Libera bat euskaldun bakoitz" edo "1 franc par basque". Laguntza galde honen arrazoiak asko dira eta politikak aztertutak ditugulako, orain emanen ditut praktikoak, SEASKAk berak emanak.

PRESUPOSTUA GOITITU

78 urterako Maitia zuzendariak esaten digu 1.500.000 franko despendio izanen direla guttienez. Dirualde honen barruan dabilza 35 irakasleen eta 3 bulegolarien ogibideak. Gainera hor dabilza ere lehen mailaren arazoak, alokairuenak eta kantinenak (haurren jantekiak eta ikastokiak). Honela, Maitiak esaten zigun zenbait ikastetxetan irakasleek berek behar dutela hargin eta igeltsari bilakatu. Hargatik, joan den urteari gonbaratuz aurtengo presupostua % 50 gehiago izanen da.

Gainera, SEASKAk egin digu azterketa bat oso interesgarria eta guztiz jakingarria. "Frantses irakaskuntzan haur batek 5.200 F kostatzen du, 1.200 F herriari eta 800 F departamentuari. Beraz, Euskal Herriko herriek, departamentuak eta frantses irakaskuntzak, 680.000 F baztertzen dituzte ikastolei esker. Horregatik uste genuen administrazio maila guzti horiek laguntza gehiago eginen zigutela, 150.000 F herriarengandik eta 350.000 F departamentutik. Zoritxarrez, 120.000 F baizik ez dute eman SEASKAri. Hori dela eta SEASKA elkarteak pentsatu du HERRIARI oihu egitea eta honen laguntza galdatzea. Itxaropen dugu herriaren erantzuna zabala eta egokia izanen dela".

SEASKA
8, rue THIERS

64100-BAIONA
tel: 25 10 53

FRANTSES ARRAZISTA HORIK

Euskaldunok arrazistak omen gara, baina gure ustez, konplimendu berdina frantsesegi egitera behartuak gara. Ez guk pentsaturik, beraiek geure diferentzia eta geure lana ez digutelako onhartzen. Frantses arrazistak? Bai, frantses arrazistak.



Baionan. Ikastolaren aldeko manifestapenean.

KAS-EN IDEOLOGIAZ

“Euskal iraultzaren ideologian oso zaila da aurrera jotzea, milimetroka egiten da hau.

Atzera, ordea, kilometroka egiten da.”

Edonork

SARRERA

Hortik esaten da, eta nik uste dut arrazoi guztiarekin, iraultzaile ideologiak krisisean daudela. Munduari begirada bat botatzea baizik ez dago, batez ere Europari.

Euskal Herrian, abertzale iraultzaileak ere krisisean omen daude. Burruka mantentzen zuen sugarra itzaltzen ote?

Nik uste dut krisis hau ez dela gauza berria. Edozein mementutan, edozein herritan eta edozein ideologiaren inguruan eman dira krisiak. Areago Euskal Herrian. 1960.ean hasten den prozesua kontraesanek beterik agertzen zaigula nork uka? Aurrera jo da, ordea, bai ideologi mailan eta bai politik mailan. Mundua dialektikoki ikusi nahi dugunok krisialdi honen irtenbidea topatzen saiatu behar dugu.

Gaur egun, abertzale sozialista deitzen dugu geure burua. Independentzia eta sozialismoaren alde agertzen gara. Askatasun nazionala eta soziala txanpon batén bi aurpegiak direla esaten dugu. Baina hau guztiau gaur hain lasai esateko urte askotako burrukak pasatu behar izan du, burrukan frogatzen baita ideologia baten edo besteren balioa.

8 urte behar izan ziren gaur oso lasai onhartzen dugun berauxe ulertzeko. Ehundako eztabaidak, erretzeak eta abarrek beharrezkoak izan ziren ondorio horietara heltzeko. Harrez gero Marx, Lenin eta abar oso ezagunak bihurtu zaizkigu. Iraultzarako giltza non topatu ibili gara eta gabil-tza.

Ikusi dugu nola eman den iraultza beste herrietan, eta askotan letraz letra nahi izan dugu honeratu, hauxe egin dugun bakoitzean burua paretaren kontra hautsi dugularik. Eta hemen dagoke, beharbada, guretzat puntu interesgarri bat, hau da, onhartzea eta asumitzea gure prozesua berezia dela, inongo modelorik ez dugula, geuk egingo dugula modelo. Eta horretarako behar den bezain irekiak izaten jakin behar dugu.

IDEOLOGIAZ

Gaur arteko burrukalditik atera ditzakegun ideologi mailako puntu nagusienak hauxek lirateke:

- Nazional eta sozial zapalkuntza onhartzea. Honen ondorioz, gure kontsigna estrategikoak ateratzen ditugularik: Independentzia eta Sozialismoa.
- Burrukaren eragile eta zuzendari gertatu zaigun erakunde harmatua. Honek, gainera, herri mailako burrukari berezitasuna eman dio: autoeraketa.

1974.etik gaur arte, etengabeko buruapurtze batetan gaude murgildurik, “egoera berria” dela eta. Nola eman aurpegi egoera berri honi? 1974.ean, zihur asko, ez zen pentsatzen arazo honek hainbeste buruhauste sortuko zuenik.

Eranitzunak tipo desberdinetakoak izan dira.

Lehenengoz eta behin, erakunde harmatua bakarrik, ala erakunde harmatua eta alderdia behar ziren ala ez izan zen gure arteko kontradikzio nagusiena. Bi urte luzez iraun zuen kontradikzio honek.

Geroago, jadanik sortu beharrezko zen alderdiari buruzko teoriaren inguruan izan genuen kontradikzioa. Alderdi bakar bat behar zen ala bi, komunista eta sozialista izanik berauk. Honen inguruan ere bota genuen makina bat ordu.

ONDORIOA

Gaur eskuartearen daukaguna hauxe da: burruka harmatua, alderdia, masa erakundeak, autoorganizazioa. Errealitate honetatik abiatu behar dugu irtenbidea topatzeko orduan. Material hau ondo moldatzen jakin behar dugu.

Nire uested, historian aurrera atera nahi baldin badugu, ideologi eta politik mailan urrats berri bat eman nahi badugu, hauen arteko koordinaketa zuzena topatu beharra daukagu. Eta hau hauen artean kontradikziorik ez dagoen bitartean lortuko dugu. Egin dezagun bada, kontradikziorik ez izateko bidea, koordina gaitzean eta burrukan ikusiko dugu bakoitzaren funtzioa eta besteekiko harremana zertan dautzan.

Ez gaitzean eskema eginetan jaus, ireki ditzagun begiak eta adi adi ikus dezagun burruka honen eboluzioa, bera izango baitzaigu irakaslerik onena.

Mendizabal

MAIATZAREN LEHENA NORA GOAZ?

Munduko langileen arteko solidaritatea mundua bezain zaharra da. Herri desberdinetako langileek beren askatasunaren alde daramaten burrukaren sinboloa dugu maiatzaren lehena.

Guk, Euskal Herriko langileok, nazio kolektibitate zapaldu baten parte izanik, aspalditik ezagutzen dugu maiatzaren lehenaren esangura sozial, nazional eta internazionala zein den.

Eta horregatik, Euskal Herriko langile klaseak burruka egin du eta egiten dihardu, klasearen batasuna eta solidaritate internazionalaren etsaiak diren konbentzionalismo bur-

jes ttikia, zentralismo amorratua eta sozial inperialismoaren kontra.

Euskal Herriak, zentzu honetan, dimentsio beiri bat eman dio klase burrukari, zeren hemengo langile klaseak kontzienteki eta objetiboki asumitu baitu askapen nazionalaren aldeko burruka. Honi esker, burjeseria nazionalari iniziatiba kendu ahal izan zaio alor honetan eta, bide batez, behera bota dira "nazio zapalduen askatasunerako burruka, burjeseria nazionalak dinamizaturiko prozesua zela, eta horregatik klase menperatzaileen interesei zegokien arazoa zela" esan zutenen "klitxe" sozial inperialistak.



Maiatzaren lehena zen.



Euskal Herriak zentzu berri bat eman dio klase burrukari.

Gure aportaketak, sozialista eta nazio zapaldu baten langileak izanik, internazionalismoaren kontzeptuari dagokionez garrantzi berezia dauka, hau da: nazionalitateen alorrari proiektzio dialektiko berri bat ematea eta langile klasearen protagonismoa bere eginkizun historikotik apartatu nahi dutenen interes ezkutuen gainean dago, proiektzio horretan, Euskal Herriko langileria eta populuaren burrukek iritsi dituzten mailen garrantziaz, argi nabari daiteke nolakoa den langileok geure libertatearen konkistan asumitu dugun papera.

Esepio legeak, lagun asesinatuak, heriotze zigorrak, gartzela eta atzerrialdiak, torturak eta klandestinitateetarik gogorrena ere ez dira gure arteko solidaritatea, modurik gogorenean agertzeko oztoporik izan.

Estatu zapaltzaile eta sistema esplotatzailearen aurkako burruka *denominadore komuntzat hartuz, etorkinak eta bertokoak, denok batera gertatu gara "barriak den alderdi berean"* eta horrela, denok askatasunaren alde elkarrekin burrukatuz, gogorrago bihurtu dira gure populua eta Espainol Estatuko herrien arteko solidaritatezko loturak.

Burgoseko prozesua, GAsteizeko asasinatuak, Txiki eta Otaegiren afusilamenduak, Euskal Herriko mobilizazio eta greba orokorrak, etab., etab., izan dira frankismoaren sus-traiak kordoka jarri zituzten beste hainbat egun oroigarri.

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdai

Urteko abonamendua:

Bertorako	1.000 pezeta
Latin Amerikarako	1.150 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako	1.300 pezeta

Ale bakoitza: 50 pezeta

Aurtengo maiatzaren lehenā, Estatuko herri guztietatik etorri eta, solidaritatezko loturak sortuz, gure anaiak bilakatu diren langileentzako omenaldi eguna izan da, eta lotura hauk dira gizon eta herri libreen gizarte bat eraikitze behar beharrezko oinharria.

1978.eko maiatzaren lehenā, azken 43. urteotan tolerantziaz, baina ez askatasunaz "hospatu" den lehenā izan da. Eta langile mobilizazioei eman nahi diegun izaeraz, balantze politiko eta analisis sakon bat egiteko oinharritzat hartu behar dugu egun hori.

Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako manifestazioetan bildu den jendetza izugarria, zerbait egiaztagarri eta positiboa izan da, baina egia da ere, eta hau negatibo eta batasunaren kontratztat jotzen dut, sindikal "fetitxismoaren" portaera protagonista eta esklusibista.

Maiatzaren lehenā hutsune anekdotiko eta folklorikoan erortzea nahi ez dugulako, jarrera kritikoak hartu behar ditugu egun probokatzaile eta fetitxe sindikalen kontra.

Hurrengo urteetako maiatzaren lehenak batasun eta burruka egunak izatea behar dugu, eta aurten baino burruka modu kalifikatuago bat, Euskadiko langileok pairatzen dugun zapalkuntza bikoitza eta libertate faltari erantzuteko.

Behar beharrezkoa da guretzat iniziatiba burjeseria eta bere U.C.D.ren gobernuaren eskutatik kentzea berriz ere, eta beti egon garen lekuan mantentzea, hots, Herri eta langile burruken aurrean; Euskadiko herri osoaren aurrean; "barriak den alderdi honetan", zeren honela, hipoteka eta paktu lot-sagarririk gabe, Euskal Herriko langile mugimenduak eta Espainiako Estatuko beste herriek hain beharrezko dugun batasuna eraiki ahal izango baitugu.

Ez dugu parlamentuko ekintzarik arbuizatzen, baina langile eta herri iniziatiben osagarri bezala ikusten dugu; baina sekula ere ez du izan behar hauen sustutuzio bat; eta are gut-tiago, ez du izan behar Suarezren gobernuaren tresna bat, oposizioaren parte handi baten konformismoaz, desmobiliza-ziorako eta herriaren parte batek denon interesen kontra eta gure atzetik sinatu diren paktuak onhar ditzan.


Herrien arteko solidaritatea, demagogiarik eta interes partidistarik gabe ager dadin burrukatuko gara. Gure solidari-tatea eta laguntza osoa emateko prest gaude, baina honen ordez, zapalkuntza nazional eta esplotazio sozialaren kontra-ko burrukan errespetua eta laguntza esijitzen dugu.

Honela bakarrik lortuko dugu nahi dugun Internazionala eraikitzea; klase kontestu baten barnean, herri eta langile klasearen batasunaren oinharritzat solidaritatea, berdintasuna eta elkarrekiko errespetua izango dituen Internazionala.

Gora Euskal Herriko eta munduko langileria!

Jon Idigoras

ARRAZAKERIAK ETA BESTE



Etorkinei buruzko ene esanak direla bide, ene pentsakera askoz lehenagotik batere gogoko ez duten batzuri hizpidea eman omen diet oraingoan.

Artikulu luze bat argitarazi dut honetaz joan den asteko "Punto y Hora"-n (1978-IV-27); eta, denak ados izan ala ez izan, argi-eta-garbi azaldu dut erdaraz neure irizkera. Otoi, beraz: onez-onetara ari denari bederen, hartara jotzeko eskatuko nioke. Hura bera berriro hemen itzultzeak ez luke baliotasun handirik.

Ni neu euskal "odol garbikoa" ez izanik (ene "Alvarez" bera lekuko), nekez izan ninteke arrazakoaia.

Serologiak behin eta berriz erakutsi duenez, hau ba dakigu, dudarik gabe esan behar da "Akitaniako Triangelu"-an ("Vasconia" Zaharrean, alegia), "arraza" dei daitekeen zerbait izan dela gaur arte. Baina ez nik eta ez beste inork proposatu du serologi-zertifikaturik eskubide politikoan oinarritzat... Serologiak eman ditzakeen datoak, bestalde, estatistikoak dira; eta ez *personalak*.

Matematika apur bat jakinez gero, azkenekorik, errazki jabe daiteke edonor "arraza"ren ahuleziak; zeren lehenengo belaunaldian 2 guraso baditugu, bigarrenean $2^2 = 4$ aitona-amonak baititugu; hirugarrenean $2^3 = 8$ birraitona-amonak; eta, atzerago joanez gero, n belaunetan, 2^n aitaso baititugu. Aski da, hortaz, bost mendez atzera jotzea (20 belaunaldi, eman dezagun), sortzen den kopurua-
ren gaitzaz harritzeko: $2^{20} = 1.048.576$ arbaso! Nekez pentsa dezake inork XVI. mendeko bere arbaso *guztiok* "odol garbikoak" zirenik... Nik bederen ez nuke postura handiegirik egingo!

"Odol garbi"aren kontuak (eta "odol garbi" horri omen legozkiokeen "bertute" harrigarriak) *ipuin hutsak* dira. "Odol garbi"rik ez dago. Denok gara, gehiago ala gutxiago, odol *nahasikoak*. Eta ni neu lehenengoa, eta beste asko baino nabarmenkiago.

Gizona ez du, gainera, "odolak" egiten; eta egiten duen heinean ere, "odol" hori "garbia" nekez delako, nekez ere proposa daiteke gaur arrazakeriarik.

Baina argudio eta arrazoin sakone-
tara gabe ere, gauza nabarmena da



Euskal agintariek gabe nork integratuko ditu?

ez dutela gizona bere etorkiak edo bere deiturak egiten, bere gizarte giro eta inguruneak baizik.

Ameriketako euskal multzoak eza-gutuak ditut nik han bertan: Idahon, Nevadan, Mexicon, Venezuelan, Colombian. *Itsua* izan behar litzateke han gertatu denaz ez jabetzeko: jatorriz euskaldunak diren jende haiek, bertakotu egin dira osotara; mexicotartu egin dira, idahotartu, venezuelatartu. Hara joandakoen seme-alabak, batez ere, eta zer esanik ez ilobez, *hangoak* dira goitik beheraino; eta euskalduntzat jotzea, edo aberri-arazoaz zinez kezkatzen direla uste izatea, *pikuan* egotea da, eta ametsik zoroenetan kulunkatzea. Ameriketako euskaldunak, *gizatalde* gisa, *galduak* ditu Euskal Herriak. Eta odolak eta arrazak ezer gutxi ute ikustekorik horretan guztian. Baina, erdaraz esatekotan, "el hombre no es de donde nace, sino de donde pace".

Ameriketako gertakari honek, ordea, ni tristuraz-edo bete beharrean, *esperantzaz* betetzen nau. Zeren Ameriketako euskaldunak galduak badira Euskal Herriarentzako, arrazoin *berberarengatik* (eta uste honetan nago sinetsita gero eta irmoago) Españako lurraldeetatik heldu diren etorkinak (eta areago berauen ondorengoak) galduak izango baitira espāñatar inperialismoarentzat. David Alvarez eta Txiki Paredes, gaur gaurkoz harrigarri gerta badaitezke ere, etorkizunaren aintzindariak dira hain zuzen.

Euskal *giroa* behar, horretarako; eta euskal *giroa* izan dadin, euskal *agintea* behar. Erdal giroari euskal *giroa* nagusitzen ez bazaio, etorkinak guri ez baina *gu geu* gatzazkio egokitu giro "franco-español" horri.

Asimilakuntza beti gertatzen da; hori bai. Baina *soziologi-giroaren* alde mamitzen da; eta ez deklarazioen edo abstrazioen alde.

Peru-n bizi diren euskaldun etorkinak, adibidez, (eta ez naiz hipotesitan mintzo), ez dira ketxwatartu, perutartu eta "limeño" bihurtu baizik. Eta Bretañara joan direnak, ez dira bretoindartu, frantsestu baizik.

Gure arazoa, hitz batez, eta ez etorkinengatik bakarrik, instituzioen eta euskal gizaroaren *euskalkuntzan* datza.

Egun hauetan irakurri dudanez, ordea, "vergüenza" bide zaio zenbait aberkideri honela pentsatzea. Eta ene galdera zuzenean doakie: zergatik dira "lotsagarri" artikulu hau edo "Respuesta al comité de emigrantes" delakoa? Zertan dago arrazakeria? Erantzunaren zai nauzue.

Gure herrian inor baldin bada, eta betidanik inor izan baldin bada, zantpatua eta ukatua; alderdi abertzaleetan beretan, bai atzo eta bai gaur, inor baldin badago behin eta berriz, eta mila bider, zafratua, ukatua eta bihotzaren erdian akuilatua, *euskalduna* da eta izan da. Hauxe bai mingarria eta lotsagarria. Eustakiok xuxen zionez: "arrotz neure herrian".

Baina *lotsa* hauek ez dira aipatzen; eta eztena abertzaleontzat gordetzen da... Eta "euskal inperialismo"aren arriskuak aipatzen dira; eta euskaltzale etsituen "gehiegikeriak"... Mutilak, mutilak! Ez ote zaizue aski inperialismoak jasan-erazitako galbarioa? Zerok ere kolpatu behar?


Gurekiko *gupida* bederen izateko eskatu beharko ahal diegu azkenean gure arteko "quisling" horiei?

Txillardegí

Donostian, 1978-V-4



ERLIJIOA HIRUGARREN LEKUAN



Aurreko batean aldizkari "berri" bat: "Herria-2000-Eliza" eta liburu berri bat: "Herria-Eliza EUSKADI Pueblo-Iglesia" aipatzen nituen, albiste pozgarri bezala. Hala ere esan beharra dago, erlijioari buruzko euskal liburugintza eta pentsamendua oso pobreturik dabiltzala.

Aurtengo JAKIN Aldizkariaren lehen zenbakian J.M. Torrealdyk azterketa bat egin du, 1977.eko euskal liburugintzari buruz. Erlijiozko produkzioa hirugarren lekuan dago, 13 libururekin eta 8,5 %-ekin. Aurretik dauzka Hizkuntzalaritza eta Literatura. Ohorezko lekua, esango genuke agian.

Baina bi puntu hartu behar dira kontutan: 1) J.M. Torrealdyk berak nabarmentzen duenez, liburu horietatik gehienak katekesi liburuak dira; ez dago, beraz, pentsamendu sorkuntzarik. 2) Nahiz eta euskal liburugintzan hirugarren lekua eduki erlijioak, alor honetako produkzioa gainbehera etorri dela esan beharra dago, batez ere liburugintza osoari begiratzen baldin badiogu. Euskal liburugintza, nekez bada ere, kultur alor berriak irabazi eta konkistatu nahian dabilen honetan, erlijioaren alorrean atzeraka datorrela dirudi.

Garai batetan euskal kultura idatzia ia-ia erlijioaren monopolioa zen; seinale txarra, euskal kulturarentzat! Baina beste kultur alorretan euskal liburugintza gora etorri den urte hauetan, erlijiozkoa oso moteldua gelditzea ez dut uste seinale ona denik, Elizaren eta kristauen indar soziala hain garrantzi handikoa baita oraindik orain Euskal Herrian.

Zergatik erlijiozko pentsamendua-ren agorraldi hau? Zergatik ez da erlijiozko kultura euskal kultura osoaren azken urteotako dinamikarekin batera joan?

SEKULARPENEA ETA ELIZAREN BEHERAPENA

Arrazoin soziologikoak nabarmendu ohi dira gehienetan. Eta seguraski egiazkoak dira.

Euskal gizartea, eta horrekin batera, euskal kultura bera sekularitu egin dira. Zalantzarik gabe, euskarak eta euskarazko kulturak ekinaldi galanta eta luzea darama mundu sekularraren barrutia konkistatzeko. Pozgarria da hau. Euskal kulturaren ihardun den eliztar asko ere bide horretatik saiatu izan da, alor berriak irabazten.

Baina kulturaren sekularpena eta autonomia onhartu eta indartu den heinean, euskal kristau pentsalariak eta erlijio kulturegileak ez dute aldi berean Euskal Herri sekulartu horretan erlijiozko pentsamendua integrazten eta aberasten jakin. Zokoratuz joan da, bere barruti bereizia gorde nahian edo. Eta honek kaskartu eta pobretu egin du erlijiozko pentsamendua, euskal kultura sekulartua handitzen zen bitartean.

Baina ez da hori bakarrik, erlijiozko liburugintzaren beherapenaren arrazoiak. Beherapen horrek ba du zerikusirik, euskal gizartean Elizak berak izan duen beherapenarekin. Alde batetik, garai "hartan" zuen itzal soziala eta kulturala galdu du erlijiozkoak. Bestetik, gogoan eduki beharra dago, euskal kultur taldeak eta zentruak ugarituz eta indartuz joan diren honetan, erlijio pentsamendua sortu eta zabal zezaketen Eliz zentruak —Seminarioak, teologaduak, etab.— urrituz eta motelduz joan direla.

EUSKAL ELIZAK BERE PENTSAMENDUA BEHAR

Ez da garaia, atzera begira jartzekoa, aspaldiko mundu eta kultura sakralizatu haietara itzuli nahian edo.

Euskal Elizarentzat erlijio pentsamendua indartzea eta aberastea behar-beharrezkoa dela esaten baldin bada, ez da adierazi nahi, bere sekulartasuna eta autonomia lortu dituen euskal kultura berriz ere bere magalpera edota menpera eramaten saiatu behar duenik Elizak. Hasiera-hasieratik euskal kulturaren beregaintasuna eta autonomia onhartu, aitortu eta finkatu beharra dauka erlijiozko pentsamendua. Horren barnean jokatu beharra dauka bere jokoa, erlijio kultura bezala; ez ginetik, hori menperatzeko edo.

Hala ere, Euskal Elizaz mintzatzen ari gara. Horixe eskatzen ari dira kristauak eta kristau ez direnak. Baina ez dago euskal Elizarik, bere pentsamendua etengabe sortzen eta gorpuztert saiatzen ez den bitartean. Euskal teologiarik gabe, nekez definitu eta indartu ahal izango da euskal Eliza.

Euskal teologi zentruak —Seminarioak eta teologatuak— urritu egin dira Euskal Herrian. Jainkoari esker! Hobe da indar guztiak batean bildurik, askotan sakabanaturik baino. Oraindik ere sakabanatuegiak daude euskal teologi indarrak. Euskal Elizak ezin ditzake hiru Fakultate mantentzea, bataiatu guztiak teologia ikastera behartzen ez baldin baditu!

Hiru teologi Fakultate Euskal Herrian eta euskal fakultaterik bat bakarrik ere ez Euskal Elizarentzat! Teologi fakultateak sarriegitan Erromako Fakultate "unibertsalen" irudira irudikatu eta antolatu izan dira, "teologia unibertsal" eta "philosophia perennis" baten zerbitzuan.

Orain dela urte batzuek sortu zen Donostiako Martutenen Teologi eta Pastoraliza zentru bat. Bere lan egokia egiten ari da, teologiazko pentsamendua bizkortzeko eta Euskal Herriaren dinamizari egokitzeko. Orain Euskal Teologi Institutu berri bat sortzera doa, orain arte hiru Teologi Fakultateek eman ez dutena eskaini nahian edo. Euskaraz izango omen. Agian oin-harri berri batzuek jartzen ari dira, Euskal Elizarentzat euskal teologia bideratzeko.

Baina teologi zentruen gainera, erlijio eta teologi pentsamendua aldizkari eta liburuen bitartez bizkortu eta sakondu beharra dago. Ba da euskaraz teologi aldizkari bat: JAUNAREN DEIA. Euskal kristauen, eliztarren, elizgizonen eta kristau pentsalari eta teologilarien aldetik harrera handiagoa balu, seguraski eragina ere handiagoa ukango luke.

Katalunian ba da Teologilarien Elkartea bat, Kataluniako Elizan erlijio eta teologiazko pentsamendua indartzeko. Honelakorik bultzatu beharko lukete euskal teologiariek ere. Honetarako egin zen ekinaldi batek fruitu handirik eman ez bazuen ere, horrek ez du esan nahi euskal teologilarien Elkartea egokia eta beharrezkoa ez denik, Euskal Elizaren fedea euskal dinamika sozial, politikoa, kulturazkoa eta ekonomikoa finkatuko eta sakonki gorpuztuko baldin bada.

Eta egokia eta beharrezkoa baldin bada, egingarria da.

Paulo Agirrebaltzategi

FRANTSES ETA ESPAINOL POLIZIA MAITEMINDURIK



Laster gendarmeak ikusiko ditugu
Iruineko manifestaldiak desegiten.

Hemendik aurrera, espainol eta frantses polizia-
ren arteko elkar laguntza bizkortu eta hobetu behar
omen dute. Hori diote, behintzat, Madrilgo despatxu
diplomatikoetan.

Horretarako, barne arazoetarako ministrari diren
Christian Bonnet, frantsesa, eta Martín Villa, espai-
nola, laster bilduko dira. Euskadiri buruz hitz egingo
dutela zihur egon gaitezke.

Bai pozik egonen dela Margarida superagentea!
Hemendik aurrera dena eskura emanen diote.

Laster, gendarmeak ikusiko ditugu Iruineko
manifestaldiak desegitan, eta grisak, berriz, Frantzi-
aldera sartuko dira, errefuxiatuak detenitzera. Martxa
honetan, ez dute extradizioerik eskatu beharko, eta ez
mugarik izanen. Dena libre izango da poliziarentzat.

Hori da "Europa sin fronteras"!

Zorionez PNV eta PSOE akordio batetara heldu
dira kontzertu ekonomikoerik buruz. Kontzertu politiko-
rik ez dute lortuko, baina haizearen puzkar usain
gabea guttiago da oraindik.

Gainera, PSOE eta PSP elkartu dira. Zorionak.
Elkartzeko lanak oso gogorak izaten dira gehienetan.

Eta Aldalurren gertakizuna zer?

Non daude partidu demokratikoak? Non daude
gizaeskubideen defendatzaileak? Poeta bezala
etxean gelditu al dira?

Oh! partidu politiko birjinak, puruak eta santuak!
Botuaren papeleta jasotzeko bakarrik oihukatzen al
duzue demokrazia?

Oh! partidu politiko kastuak, limosnariak eta
analistak! Zuen politikari ez al zaio komeni frantses
eta espainol polizia salatzea?

Oh! partidu maiteok! Aldalurre egin diotena Eus-
kal Herriari egin diote! ...Eta zuek, poeta bezala,
etxean gelditu zarete ateak itxita. Partidu inutilok!

Denok ba dakigu zer pasatu den Aldalurrekin.
Frantziak ez du bere konstituzioa errespetatu, ez eta
Ginebrako konbentzioa ere. Bitartean, Aldalur Jakan
aurkitzen da. Eta partidu politikoak parlamentuko
tabernan tratuak eta akordioak egiten, ea zer nori
eman bozketetan.

Horrela da mundua.

Beste alde batetik, moltsa gora doa. Sekulan bai-
no igoera handiagoak ditu, azken egunotan. Moltsa
gora eta gure sakeleko sosak behera, martxa honetan
garbantzuz betetzen hasi beharko dugu galtzetako
kartera. Galtzak ez baldin baditugu galtzen, bederen.

Hau jakiteko, galde diezaiogun Babcock Wilcox-
eko langileriarri. Horiek ba dakite ongi zer pasatzen
den sakelak hutsik daudenean.

IRUINEKO TIROTEO BATEN KRONOLOGIA



Inkontrolatuak Iruinean. Ordenu baten zaintzaileak.

HIZTEGIA

gertakizun = suceso, hecho.

harrigarri = extraño.

biharamonean = al día siguiente.

abiada = velocidad.

Orain dela zenbait egun, gertakizun harrigarri bat gertatu zen Iruinean. Agian, oso normala da Euskal Herrian, baina hala ere kondatu behar dut. Merezki du.

Maiatzaren lehenean, arratsaldean, Iruineko manifestaldi batetan bi gazte detenitu zituzten. Biharamonean, gartzelera eraman zituzten.

Berri hau jakin zenean, gazte talde bat bildu zen manifestaldi bat egiteko. Berrogeiren bat ziren. Labrit frontoiaren ondoan zeuden, eta Txantrea doan karreteran barrikada bat egin zuten.

Ni han nengoen. Liburu batzurekin nentorren eta begiratzen gelditu nintzen.

Barrikada egin zutenean (oso ongi egina, gainera), oihuka hasi ziren. Mementu horretan, bi polizia sekreta etorri ziren auto batetan. Autoa Seat 124 bat zen, eta matrikula BI-7431-I zela uste dut. Orain ez nago zihur, baina hala uste dut.

Bada, autoa zetorrela ikusi zutenean gazteek, harriak botatzen hasi zitzaizkion. Gazteek ba zekiten sekreta zela eta horregatik botatzen zizkioten harriak autoari.

Kristal guztiak hautsi zizkioten autoari, eta bi sekretek ihes egin zuten korrika. Orduan, gazte batzuren artean autoa irauli zuten eta su ematen hasi ziren.

Beste gazteak pixka bat urrundu ziren, eta bat bakarrik gelditu zen autoaren ondoan, petardo txiki batzu prestatzen.

Horrela minutu batzuk pasatu ziren. Bitartean, sekretak ezkutatu ziren eta geroxeago karreteraren goiko aldetik agertu ziren.

Orduan izan zen mementu gogorra.

Bi sekretek pistola atera zuten, eta batek bi tiro bota zizkion gazteari. Baina ez zuen jo. Agian, airera tiratu zuen.

Orduan, sekretak gazteari esan zion: "*Si le das fuego al coche te disparo!*". Mutila tente gelditu zen. Bi besoak zabaldu zituen eta poliziari begira jarri zen. "*Dispara si quieres, aquí me tienes*" esaten ziola zirudien.

Tentsio handia zen. Hogeiren bat pertsona geldirik geunden. Poliziak mutila apuntatzen zuen. Segunduak oso luzeak ziren.

Orduan, 091 baten sirena entzun zen. Abiada osoan zetorren Labriteko frontoi ondora. Eta gaztea han zegoen, bakarrik. Sirena entzun zuenean, korrika hasi zen.

Sekretak altua bota zion, baina mutila ez zen gelditu. Korrika jarraitu zuen. Orduan, sekretak lau tiro bota zizkion jotzera. Baina, zorionez, ez zuen betean eman.

Sekretak ezin zuen mutila detenitu, zeren, pareta baten goiko aldean baitzegoen bere lagunarekin.

Horrela, mutilak ihes egin zuen. 091 heldu zen auto txikituaren ondora, baina inor ez zegoen ia.

Orain dela zenbait egun gertatu zen hau. Zorionez, mutila salbatu zen. Baina, hil balitz? Biolentzia ez da heriotzarekin bakarrik sentitzen.

Iñaki Zabaleta

«ANTES DE LA LENGUA VASCA, HAY QUE ENSEÑAR LA CULTURA VASCA»

El diputado por el PNV Iñigo Aguirre, habló dentro de la Semana Vasca de cuál debería ser en la preautonomía y en la autonomía el papel de una recuperación cultural para que la expresión del País Vasco sea una realidad. Se refirió a que la actual situación era insostenible, y apuntó la necesidad de reformar tres aspectos fundamentales: la educación, la información y los bienes patrimoniales.



Iñigo Aguirre. (Foto TERESA DOUEIL.)

«Respecto a los medios de difusión, dijo, comienzan a ser positivos, aunque parcialmente, pues todavía no se ha solucionado la prensa y la radio del Movimiento. Recuerdo cuando no hace muchos años controlaban el 92 por ciento de los medios de comunicación e iban en contra de cualquier reacción cultural nueva».

«Cuando tocó el tema de la televisión regional, el diputado del PNV, que es también del Consejo Rector de Televisión Española, dio unos datos muy significativos en cuanto a los gastos de programación. En Madrid, un minuto de programación cuesta 30.000 pesetas, en Barcelona 20.000 y en nuestro Centro Regional, el presupuesto es de 1.500 pesetas por minuto. Por lo que se deduce

que, a corto plazo, una red de televisión regional aparece como insoluble».

A través de cultura y educación Iñigo Aguirre destacó posibles acciones que se pueden llevar a cabo, dentro de la idea de recuperar el patrimonio artístico. Puso el ejemplo de lo que sucedía en Cataluña con estas cuestiones: «En Gerona, por ejemplo, grupos de personas interesadas en la recuperación de monumentos, han llevado a cabo una campaña de reconstrucción de ermitas a lo largo de toda la provincia».

También señaló como importante la creación de una Escuela de Radio y Televisión para que salie-

ran en servicio del país guionistas, productores, filmadores, lo mismo que ya está sucediendo con Ciencias de la Información, que proporcionará unos periodistas formados en nuestra cultura.

En el coloquio, Iñigo Aguirre se mostró más favorable a que se enseñara antes de la lengua vasca la cultura vasca, es decir, la historia, la geografía, la literatura. Entonces, los niños se sentirían en una mejor disposición para estudiar euskera. «Es lo que sucede en Cataluña. A los niños, primero les enseñan lo que es Cataluña para que se hagan catalanes de pensamiento».

F. D.

IÑIGO GUREAREN PERLA BERRIAK

Tarradellas bezala, Iñigo de Aguirre parlamentariak ba du jendea egunero harritzeko dohain berezia. Lehen-goan kristorenak eta bost esan zituen publikoki euskal irakasbideen kontra (*¿Qué se creen esos, que van a conseguir recuperar el euskera con el Euskalduntzen bajo el brazo?*), beraren ustez, euskararen etorkizuna oraindik ez dugun baina dukegunean seguraski ezin hobea izanen den telebista erregionalean egonik.

Oraingoan, berriz, Deustuko Hizkuntz Eskolan egin-dako hitzaldi batetan, ondo-ko hau esan zigun, euskal kultura euskara baino lehen irakatsi behar zela, berau geroko utzita. Euskara gabeko euskal kulturarik ezin zegokeela uste genuenok behintzat nahiko harriturik utzi gintuen bertan. Okerrena baina, zera da, Iñigo de Aguirrek dioen bide horretatik segituz gero, bere telebista erregional horretatik ere euskal kultura berdin erdaraz eskainiko digula lasai asko. Kultur arduradun ederra gurea, jauna!

POLIZIEKIN KONFORME, BIHOAZI

Gezurra omen da Euskal Herrian dauden polizietarik erdiek lekualdatzea eskatua dutela. Bilboko polizia batzuk deklaratu dutenaren arauera, Euskal Herrikan kanpora joan nahi duten poliziak ez dira erdiak, denak baizik. Ordenuaren zaintzaileen artean inork ez du gure herrian segitu nahi, zeren bertan ematen diegun tratua ez baita —hain ustez, noski— hain ona.

Baina, zoritxarrez beraientzat eta geuretzat ere, poliziaren buruek ez dituzte eskabide horik haintzakotzat hartu nahi, eta denon gogoz kontra egonaraziko dituzte gure artean.

Gure ustez, ez da bat ere egokia, polizia hauen eskakizunei jaramonik ez egitea. Oso gauza gutitan esan dezakegu herri honetan poliziek ados gaudela, honetan, aldiz, konforme gaude, bai. Joan daitezela denok, eta lehenbailehen gainera, geuk ere desio berbera baitauekagu. Horixe bakea eta lasaitasuna lortzeko biderik onena izanen bailitzateke.

Ba dakigu ongi, Madrileko poliziaren superburek ez dutela probetxatu nahi ukatzen Euskal Herriaren gogoan eta beraien «mutikoenak» betetzeko, aukera paregabe-ko hau. Hala ere, nahiz eta buruek onhartu ez, segur gaude, Euskal Herriak ahalegin handiak egiten dituela nahi hori bete dadin, bai eta uniformearen kolorea aldatzen badiete ere.

HENDRIKE KNORR-EN SARRERA HITZALDIA GASTEIZEN

Apirilaren 28an, Done Prudentzio egunean, Hendrike Knörr euskaltzainak bere sarrera hitzaldia irakurri zuen publikoki Gasteizeko diputazioan. Gaia: *Federiko Belaustegigoitia laudiotarra*. Arabako euskaltzale eta jeltxide horren gaurkotasan eta meritu harrigarriak goraiatu zituen Hendrikek, bai euskarari ematen zion garrantzian, bai euskarazko eta euskararen irakaskuntzaz, bai garbizalekeria kontuan eta orobat batasun arazoan, benetan arretaz kontsideratzekoak. Tamalez, gaurko jeltxide askok ez dute Belaustegigoitiaren lana ezagutzen.

Erantzule gisa, Jose Mari Satrustegi euskaltzainak ongi etorria eman zion Knörr-i, poesi kutsuko hitzaldi eder eta egiaz zoragarria eskainiz. Diputazioburuaren, Euskal Kontseilu Nagusiko kulturarako ministrariaren eta Villasante jaunaren hitzekin bukatu zen sesioa. Gure zorianak Hendrikeri eta Arabako herri osoari.

XABIER KINTANA GEORGIA

Xotha Rusthaveli histori eta literatur institutuak gonbidaturik, ANAITASUNako idazlea den Xabier Kintana, maiatzaren azken egunotan Tbilisira joanen zaigu bi hilabetetarako, Kaukasiako hizkuntzek euskararekin ukan litzaketan harremanak bertan aztertzeraz.


Gogora dezakegunez, ihazko uztailean georgiar zientzien akademiako ordezkari batzu Euskal Herria etorri ziren, Euskaltzaindiarekin hizkuntzalari trukaketak nola egin tratatzera. Orduko akordioen ondorioz, georgiarrek aurtan Xabier Kintana euskaltzain laguntzaileari estudio-gonbitea egin diote, eta Euskaltzaindiak, paretsuki, soviatar euskalariren bat, Greta Txantladze eta Yuri Zytsar irakasleak, hona deituko. Trukaketok ahalik eta fruitukorren izatea nahi genuke!

HEBRAIERAZKO TEXTU ZAHAR BAT HERRIBERRIN

Rikardo Zierbide dokto-reak, Deustuko unibertsitateko irakasle denak, hebraierazko testu zahar bat aurkitu berri du Herriberrin (Oliten). Erdi Haroko liburu baten azala osotzen duen pergaminio baten barruko partean aurkitua du, eta penintsulan aurkitu den bakarra omen da. Euskaltzaindiak Herriberriko Udalararen eta Zierbide jaunaren kortesiari esker, dokumentu horren argazki zehatz bat lortu du, laster Jerusalemeko hebraieraren akademiara hel araziko duena.

Dakigunez, Zierbide irakasleak, aurkikuntza garrantzitsu horri buruz, lan bat prestatua du, uztailaren hasieran, linguistikazko simposium batetan aurkeztekoa.

KONSTITUZIO PROJEKTUAREN ANALISIA (2)



Konstituzioaren arauera, Indar Har-
matuek segurtatuko dute Estatu-
ren "batasuna".

KONSTITUZIOGILE TALDEAK EGINDAKO PRO- JEKTUAREN ANALISIA

Espainiako Konstituzionaren proiektuak hamar titulu
ditu:

- I. Oinharriak.
- II. Funtsezko betebeharrak eta eskubideak.
- III. Koroa.
- IV. Gorteak.
- V. Gobernu eta Administrazioa.
- VI. Botere Judiziala.
- VII. Ekonomia eta Hazienda.
- VIII. Lurralde autonomoak.
- IX. Hautategi konstituzionala.
- X. Konstituzioaren erreforma.

Konstituzio luzea da. 159 artikulua eta 5 erabaki iragan-
kor ditu. Alderdi digmatikoa, hau da, betebeharrak eta eskubi-
deen deklarapena 47 lehen artikuluetara eta lehen bi Titulue-
tara hedatzen da. Eta alderdi organikoan (botereen erakun-
tzaren parte) daude enplegatutako beste titulu eta artikulua.
Gure ustez iturriak, Italiako gaurko konstituzioa, eta
Alemaniako Errepublikaren konstituzioa, hau da
Bonn-eko Oinharritzko legea ditu. Ez zaio falta Frantziako
Konstituzioaren ikuturaren bat ere, ez eta 1931.eko Errepubli-
kako konstituzioaren ere.

Teknikari gagozkiolarik, ezer ere ez zaiola falta esan
behar da. Titulu eta kapituluaren banaketa nahiko zuzena
bada ere, zenbait artikulua lekuz kanpora ditu. Agian horren
arrazoia zera da: artikulua multzo bat hitzez hitz Alemania
eta Italiako konstituzioetatik kopiatu izatea.

Baina konstituzioak ba du bat ere argi ez dagoen zerbait,
testu osoan zehar ederki hatzeman daitekeenez. Bideanabar,
batzordeak ukan dituen buruhausteen eredu ere ba da gaine-
ra. Hain zuzen ere Estatuaren kontzeptioaz ari gara. Esta-
tuak hitz guztiok erabiltzen dira: nazionalitate eta erregio,
Espainiako herriak, Espainol herria, lurralde autonomoak,
Espainol Estatuak etab.

Konstituzio hau, bere hildo nagusien arauera Deretxozko
Estatu soziala osatzen dutenen arteko sailean sar daiteke.
Era berekoak dira Estatu Kapitalista eta monopolistetako
konstituzioak ere. Ez zaio berrikuntza modernoren bat ere
falta, kasurako gizabanakoaren eta haren etxekoaren ohorea
eta barrukotasuna errespetatzeko komunikabideei ezartzen
zaien mugapena, edo baita ere ingurugiroaren kalitaterako
edo produktuen kalitatearen kontrolerako eskubidea.

Baina ikus ditzagun zehatzago projektuko titulu eta
kapitulua.

OINHARRIAK

Lehen artikulua arauera Espainia Deretxozko Estatu
Sozial eta demokratikoa egiten da. Bere Ordenamendu juri-
dikoko balio nagusizat honako hauek ditu: askatasuna, justi-
zia eta aniztasun politikari begirunea.

Ohartzeraztekoa da oinharri honen atzerakoitasuna, eta batez ere Errepublikako Konstituzioaren lehen artikuluz gonbaratzen badugu. Hark beste hau zioen: "España es una república de trabajadores de toda clase, que se organiza en régimen de libertad y de Justicia".

Alor honetan askoz ere aurrerago daude Italiako edo Frantziako Konstituzioak. Italiakoak zera dio: "Italia, lanean oinharritutako errepublika demokratiko bat da". Eta Frantziakoak: "Frantzia zati ezin daitekeen errepublika sekular, demokratiko eta soziala da".

Oinharriak osatzen dituzten lehen hamar artikuluetatik batez ere guri dagozkigun hiru ikuspegi nabarmenerazi nahi genituzte:

1) Espainol Estatu Mendebaldeko Estatu kapitalisten artean sartzea. Baina haiek baino ezaugarri atzerakoi bat hartuz.

2) Espainol Estatu erresuma bat dela gogorki ezartzea. (Geroago ere ihardungo dugu honetaz).

3) Espainaren batasunaz egiten den baiespene absolutoa. Eta bere lurralde osotasunaren defentsaz aipatu artikuluguztietan zehar behin eta berriro iharduten da.



Hauen eskuetan egon al daiteke gure nortasunaren etorkizuna?

Bigarren artikulua zera dio: "La constitución se fundamenta en la unidad de España, y la solidaridad entre sus pueblos y reconoce el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones que integran".

Beraz, Espainia batasun bat dela, mugiezina dela esaten da. Eta hori konstituzioaren oinharria izan dadila nahi da, horrela independentziaren alderako jarrerak dituztenak berehala izanen baitira antikonstituzionalak eta legez kanpokoak. Ederki nabarmetzen da hori artikuluguztietan zehar, baina laugarrenean bereziki, alderdi politikoek libreki konstituzioari eta Legeari begirunea izanez ihardun dezatela baitio. Beraz, artikuluhonen arauera, HASI eta LAIA kasurako, legeztatzekeko posibilitaterik gabe geratzen dira, eta gauza bera gertatzen zaie sindikatuei eta gainontzeko elkar-teei, 5. artikulua arauera.

Guztiau 7. artikuluan berresten da. Zazpigarren artikulua banderaz ari da, eta Espainiakoa obligaziozkoa dela dio. 10.ean ere berres daiteke. Hamargarren artikulua gure ustez oso arriskugarria da, indar harmatuetaz mintzo delarik zeregin hauk eransten baitizkie: "garantizar la soberanía e independencia de España, defender su integridad territorial y el ordenamiento constitucional".

Ez dugu ulertzen indar harmatuak Oinharrietara sartu behar hori. Izan ere ulertezina baita konstituzio baten alderdi dogmatikoan Estatuaren administrazioko erakunde bat sartzea, indar harmatuak ez baitira beste ezer. (Begien bistan dagoena zera da: konstituzioko artikuluek politikaren errealitatea azaltzen dutela, eta artikuluhonen erredakzioak ederki erakusten du harmadak mementu politiko honetan duen eragipena).

Baina hirugarren ikuspegiak guretzat interes berezi bat du, eta merezi du iruzkin bat gehitzea. Europako beste Estatuetan ba dira problema nazionalak, baina inondik ere ez gurean edo Catalunyan bezalakoak. Horregatik konstituziozotako formulak ere ez dira Espainiakohonen tamainakoak: irekiagoak dira. Bistakoa denez, Estatu horietako nazio zapaldueri askatasun osoa eman nahi izatea ezina da, Estatu-Nazio kontzeptua arras indarturik baita. Baina lasai esan daiteke Espainiakohonatan bezala, Estatu horietan nazioei ez zaiela autodeterminaziorako eskubideak eskatzeko posibilitatea uzten.

Italiako konstituzioak, kasurako, zera dio: Italia "Errepublikak bat eta zatiezina da" eta ez dago besterik. Frantziakoak berak ere, hain zentralista izanik ez dio hauxe baino: Frantzia "errepublika haustezina bat da".

Espainiaren batasuna eta bere lurralde osotasuna kontzienteki daudela hainbeste bider esanda adierazi nahi dugu hemen. Ez baita burugabekeria "separatistei" leihatika bat ere zabalik uztea komeni.

OINHARRIZKO ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Konstituzio proiektuak 36 artikulua darabiltza oinharritzko eskubide eta betebeharrak erregulatzen. Artikuluotan argi ikusten da egun parlamentuan dauden indarrek Europaren homologapena nahi dutela, frankismoaren garai larriak lehenbailehen ahantziz.

Guk ahazteko asmo hori ontzat emango genuke pena handirik gabe, guztiorretan zenbait hutsune nabarmenduko ez bagenu. Baina hutsune horik ba dira, eta larriak gainera batzu. Kasurako:

13. artikulua gizabanakoaren duintasunaz, hauts ezin daitezkeen bere eskubideetaz, eta ordena publikorako eta bakeerako pertsonalitatearen aurrerabide libreaz ari da. Hori hala bada, nola konpontzen da independentziaren aztarnarik ere permititu nahi ezaz, eta independentziaren aldeko alderdi politikoak egiteko debekuaz?

Berdin berdin aipa daiteke 14. artikulua ere. 14. artikulua, zera dio: espainol guztiak direla berdinak legearentzat, eta beraz ezin daitekeela beraien artean, besteak beste, eriztia kausa dela bereizpenik egin.

Ez da herio zigorra kentzen denik aipatzen espresuki eta berdin dibortzioaz.

16. artikulua erlijio askatasunaz mintzo zaigu: garanti-zatuta dagoela dio proiektuak. Baina 3. lerroaldean beste hau agertzen da; "Los poderes públicos tendrán en cuenta las creencias religiosas de la sociedad española y mantendrán las consiguientes relaciones de cooperación". Zer gertatu da erlijio askatasunaz?

20. artikulua egin daitezkeen iruzkina goratxoago egin dugu beste batetaz. 20. hau adierazpen askatasunaz ari da: nola uzta daitezke askatasun hori independentziaren aldeko aldeak izatea debekatzeaz?

Biltzeko eskubidea 21. artikulua erregulatzen du. Gure ustez artikulua honek eskubidea murriztu egiten du, azken batetan kontrola aginte judizialaren eskutan beharrean, aginte gobernatiiboaren eskutan jartzen baitu.

22. artikulua elkartzeko eskubideaz dihardu. Artikulu honek gure ukapen oso osoa merezi du, konstituzioaren ordenamenduan ez dauden elkarte guztiak debekatu egiten baitu.

24. artikulua azken esaldia ez zaigu batere zuzena iruditzen. Hain zuzen ere presoez ari da, eta haien eskubideez diharduterakoan nahiko motz geratzen delakoan gaude.

Eta 25.a ere ez zaigu batere zuzena iruditu. Artikulu honek Espainia defendatzen lagundu beharra ezartzen du, eta erredakzio oso kaxkarra du, ez baita ezer erregulatzen ez soldadutza mutil bakoitzaren lurralde autonomoan egin beharra ez ezer.

26.a —errenta eta ondoreak ezin konfiska daitezkeela dio— edo 29.a —jabetasun eta ondare eskubideak ezagutzen ditu— guztiz atzerakoiak iruditzen zaizkigu. 29.ean jabegoaren funtzio sozialaz hitz egiten da baina oso jeneraliki eta abstrakzio gehiegiz. Argi ta garbi uzten da ondasunak ken ezinak direla, baldintza berezi batzu tarteko izan ezik.

Baina 32. artikulua oso oso iruditzen zaigu grabea. Artikulu honek argi salhatzen du parlamantuko zenbait alderdi-uren ustezko izaera iraultzailea. Zera dio: "el empresario tiene derecho a establecer las condiciones de empleo de acuerdo con criterios de productividad y a adoptar medidas de conflicto colectivo..." Horra hor lanetik nola nahi botatzea konstituzioan legeztaturik.

Halabaina "real alternativa de poder" den PSOE irakiten jarri duen artikulua 28.a omen da. Artikulu hau irakas-kuntzaz ari da, eta bertan irakaskuntza pribatua onhartzen da, hau da, Elizarena. Baina harritzen gaituena —egia esan, ez gaitu ezertxo ere harritzen— beste hau da, halegia, ustez nazionalitateei eta erregioei autonomia ematen dien konstituzio batetan euskarazko, katalanerazko, etabarretazko hezkuntza ezertarako ere ez aipatzea.

KOROA

Estatuaren batasunaz gertatzen den bezalaxe behin ta berriro ia asper erazterarte esaten da Estatu erresuma bat, erreinu bat dela, eta Erregea dela Estaturburua, eta haren batasun eta iraunkortasunaren sinboloa. Eta zehatz mehatz, ezer ahantzi gabe legistlatzen da Erregearen zereginei, jarraitpenari, heriotzari eta abarri buruzko guztia.

Argi dago ponentziak zer guztiau lotu egin nahi izan duela, kontzentzuz lortu ezin dena, ezarriz. Jakinekoea baita Monarkiaz, Estatuaren batasunaz etab. ez dagoela kontzentzurik.

Norbaitek besterik esan badu ere gure ustez espainol estatuko Erregeak ez du Europako besteak baino aginte zabalagorik ukango. Monarkia parlamentarioetako erregeek dituzten ahalmen berdinak, ukango dituela esan daiteke. Orain duen agintea asko murriztuko dio konstituzioak.

Errepublikala ala Monarkiaren arteko eztabaida orain oso ahuldua dago lehengo aldean. Estatuaren forma logikoena errepublikarena da gure ustez eta beraz hura defenditzera saiatu behar dugu. Nola nahi ere, eztabaida horretan bereziki interesatzen dena erregearen benetako ahalmenak mugatzea da. Egia esan, eskuarte konstituzio proiektuak Espainol Estatuakoari damaizkionak ez dira zabalak.

GORTEAK

Gorteek, proiektuaren arauera, bi Ganbara ukango dituzte: kongresua eta Senatu.

Kapitulu honetan, besteak beste, Gorteetako partaideak espainol populua errepresentatzen dutela (58. ART.) esaten da. Eta hirurogeigarren artikulua, Senatuaz Espainia osatzen duten lurralde autonomoetako ordezkariak egiten dela dio. Gorago esan dugu ezin ditugula inola ere "Espainia" edo "Espainol populua" kontzeptuak onhar.

Kongresuko Diputatuak sufragio orokor, libre, berdin, zuzen eta sekretuz hautatuko dira. Eta noski guztionean dena esan da eta dena geratu da esateko, ez baita hautatzeko sistema ezertarako ere aipatzen. Baina hemen D'Hont delakoaren sistemaren "balioak" oso ditugu ezagunak.

Senatuak kongresuaren aldean inportantzia kaxkarra ukango du. Lurralde autonomoen Ganbara izan dadila nahi da. Eta hemen dago konstituzio proiektu honen beste kontraesan bikain bat: lurralde autonomoei emandako autonomiak ia ez du mamirik batere, baina lurraldeentzat ganbara bat egiten da, Estatu federaletan bezalaxe.

Senadoreak hautatzeko sistema onhartzeazina da: lurralde autonomoek ukan dezaketen senadore kopuru handienari muga bat jaritzen zaio. Sistema horren bidez jende gutti duten probintziak, edo autonomi kontzientzia ahulena duten lurraldeen errepresentapena garrantzitzen da. Gure irudiko zuzen dago diputatu eta Lurralde Autonomoko Biltzarreko kide une berean ezin izatea. Baina ezintasun hau senadoreei ere ezarri behar litzaiekeelakoan gaude.


Senatuari buruzko hartia berriro hartuz, zertan izendatu behar ditu kongresuak senatuko hogeit lagun? Arau hori konstituzioaren zuzenbideko edozein oinarriren kontra dago. Arau horrek helburu bat baino ezin dezake ukan: Senatu eta Lurralde autonomoek egin ditzaketen burugabekeriak kontrolatzea.

Autonomi estatuak zegatik onhartu behar ditu kongresuaren gehiengoak? Horixe ezin dugu ulertu. Autonomietaz ihartutean xehekiago ikutuko dugu puntu hau.

Gobernuaren eta Gorteen arteko harremanetaz, artikulua osoan barrena ohar daiteke Gobernu Gorteez gain dagoela. Are argiago ikusten da 91. artikuluan, Kongresuak gobernuari ezar diezaiokeen zentsura mozioaz ari dela.

Nola nahi ere artikulua hau Bonn-eko Oinarrizko Legearen 67.etik ia hitzez hitz kopiaturik dago. Eta sistema honi "Zentsura botu egile sistema" esaten zaio. Eta funtsean honela erabiltzen da: zentsura mozioa, guttienez ere, Diputatuaren arteko ehuneko hamarrak presentatu behar du, eta gainera Gobernuko Lehendakartzarako kandidatu bat proposatu behar du. Mozioa botatzeko bost egun itxaron behar dira, eta epe horretan beste batzu ere presenta daitezke. Azkenik mozioa diputatuaren gehiengo osoak onhartu behar du.

Gurutz Jauregui



AGORTEAN AGORDURAZ



Nolako komedia nirea! Ukabila altxatu, marxismoa ukatu.

Pariseko kaleetan lauxaduraren azpitik ez omen ziren azkean hondartzak ikusi ahal izan, orain hamar urte, Frantziako udaberrian. Igual dio, beharbada han leudeke oraindik eta, gutxienez, ordutik hona Frantzia eta Mendebalde guztiari ipar berriak jotzen dio; edo bai behintzat errebolta popularizatu egin zen, textuetatik kalera pasatu zelako, erlijio sozialari bere kotidianitatea eskatu zaiolako. Harez gero gauzak ez dira igualak izan, izango ere, nahiz eskuinak bere aparatu filosofikoa asimilantea atera eta ezker superkauteლოსak maiatz hari inportantzia kendu nahi traizioaren ostean. Lauxa berriak ipini behar, hala eta guztiz. Eta Latinoko lauxak, Portugalen krabelinak orain laur urte. Batean zein bestean ezker traidoreak —traidorea batipat beste mugimendu ezkertiarak mespretxatzen dituelako eta hauen bizkarrean saiatzen delako kolpeak ematen *zoroengandik defendatzen gizartea*: estatua azken finean— ukan duen papera

oso diferenta izan da, arazo diferentei dagokien legez, baina azken paper gisa: antzekoa, hutsunea ez entseiatu. Errebolta Mendebaldeko ezkerrentzako —betikoarentzako, noski— dezi-mononikoa bilakatu da: paperetako lezioa.

Baina gurea da, halere, harrigarriena. Hil zen, ezen ez genuen hil, diktadorea orain hirur urte kasik, eta ez dakigu zer edo non gauden, nik neuk behintzat. Prozesu bat omen da, demokraziaranzko prozesua; hori jakiten dugu behintzat baldin ezkerretik kolpe bat ematen zaionean estatuari edo dena delakoari. Baina hortik aparte ez dago oso garbi diktadura noiz bukatu den: akaso, atzo, akaso bihar goizean. Peridisek definitu du zehazkien, nik uste, Espainiako kasua Paisen —bai, ba dakit jo eta su ari dela zuen kontra— egindako txiste batetan. Txistean honela zioen Suarezek: "UCD ni se crea ni se destruye, se transforma". Materiaren teoria edo, hori dakioko hurbilen estatu honi ezaugarritzat —*rupturari* zotinak—. Bitartean herritarrek ilegala dirau.

Ez da hemen mugimendu psikologikorik izan. Denboraren nozioa galdu dugu, ez daiteke esan edo uste izan: "ordutik, bada..., orduan hasi zen..." Ez dakit, baina uste dut iraganerako erreferentziarik gabe utzi gaituztela; presente luzeegian gaudela barneratuak: airean bagina bezala. Dena itxuraldatzen da, ezer ere krearzen edo suntsitzen.

Eta ezker parlamentariak —Letamendiaz kanpo— guztia definitu nahi duke hitz sinple batez —sinpleziaz agian—, hots, geu gara botere alternatiba. Hori esan du bederen Carrillok iragandako kongresuan: "ez gara oraindik botere alternatiba, baina laster izango". PSOE orain maiz ari berorrexetan jo eta ke. Hitz bat hutsunea definitzeko, hutsunea betetzeko. Bitartean, akordiora heldu behar delako konstituzioko eztabaidatan, bizpahirur aho dira bakarrik zirikatzen dutenak, diotenez, *inoren* hitza dutenak: blasfemiak gehiengoentzat. Non, bada, ezker? Zein ezker?

DESERTU AMAIGABEA

PCEkoen kongresuak leninosmoaren *ortodoxia* utzi omen duela alde batera, espero zen —tontoen esperantzaz— eztabaida gehiago izan zitekeela, gutxienez itxura hobeagotzeko: fidagariago izan zitezen demokrazia eta guzti hori, baina hura jesuiten erakundearen pareko dela frogatu dute beste ezer baino gehiago, frogarik behar ez zuen zerbait, bestalde. Diskusio handiena, hain zuzen, *ordenuzain* eta kurios baten artean izandako errieta izan zela diote; azkenak miatu nahi, lehenak delegatu karneta eskatzen. Kontua da istilu larria gertatu zela eta definitua izan dela askorengandik *kongresuko eztabaida gogorrena bezala*.

Eta Euskal Herrikook omen zarete Espainiako politikan punturik ahulena: Akiles-en orpoa. Biba zuek! Hori esan du —ez azkenengo; beste hori nirea baita— Lertxundik kongresuan, areago, eurokomunizatu edo horrelako zerbait egin behar dela Euskal Herriarekin. Arma, arma! Prataplan plan plan: txintxuliak eta mantzupiak. Beno, dena botere alternatibaren produktua dateke. PCEk leninismoa utzi, PSOEk marxismoa, ezer uzten ez duen bakarra eskuina da. Honek, aldiz, jan. Nori berea eta izan denaren konfirmazioa. Botere alternatiba ere PCEk kongresuan ateratako Nafarroako bandera, ezen baldin ahaztuta baikenuen Euskal Herrian bi PC daudela hor oroitzen egiteko modua. Dena den, esan dute laster Nafarroakoak eta País Vascoakoak bat egingo dutela —para todo Euzkadi— euskaldun guztientzat. Ea ba, jadañik batasun arazoetan sartu direnez gero, lot bitez Espainiakoarekin eta konpleto.

Profesorea... Miloi bat botu —*kalitatezkoak, koalifikatuak*— irabazi ditu PSOEk profesorea (Tierno, bai noski) artaldean sartuz. Sozialismoaren batasuna lortu dela diote han hemen. Ez noakizue, baina, honetaz ezer ekartzera, *gizon on* horri buruz mintzatzera. Lerdakeria ez nuke komentatu nahi.

Gatozen, baina, harira berriro. Eta haria zelako deserto amaigabe honetan, denbora ezin neurtu honetan, ba diot erreferentzia bat behar genukeela. *Festa* bat zeinak guztia astinduz denborari mugak ezar diezaizkiokeen. Mugimendu psikologiko bat edo; hau dirudi bestela atzoko bihar eta etziko gaur. Zerbait gomutagarri izan dadin, ezen bestela hori ere ez dukegu ukan. Parodia txarra da ona ez bada.

J. Oiharbide

Madriren, Maiatzaren 10ean

HISTORIAN ZEHAR BENJAMIN DISRAELI (3)

Iratiko oihan hauen ixiltasuna eta bakea apartekoa da. Ba dirudi hemen denborak ez duela bere seinalea utzi. Hemen ezin jakin daiteke zein gizalditan zauden. Horren gainetik, Benjamin Disraeliren itzalaldin dudak solasaldi harrigarri hau ez zait hain estrainioa egiten.

—Zertan geunden? —galdetu dit izalalak.

—*Britainia Handian erregea hil eta Victoria neska gaztea erreginatzat hautatu zutela.*

—A, bai! Victoriak hamazortzi urte soilik zituen eta goizeko maiketean bere lehen kontseilua bilatu zuen. Disraelik Lord Lyndhurst erreginarekin jauregira lagundu zuen, baina ez zuen izan barruan sartuarik. Lord Lyndhurstek gero idatzi zion han jazoritakoaz: "luma zurizko itsaso bat, izarrezko, uniformezko...; bat batean atea zabaltzen dira, oihan baten antzeko ixiltasun bat nagusitzen da eta emakume gaztea tronorantz igoten da prelatu, jeneral eta estatu gizon pila handi baten erdian". Deskribapen hau oso atseginezkoa gertatu zitzaion Disraeliri. Hori gustatzen zitzaion: zeremonien handitasuna, jizatalde dirdiratsua eta emakume batetik gizonen homenaldi kabalereskoa.

—*Beraz, zeremonia koloretsuak gaitsegini zitzaizkion.*

—Eta nori ez? Noizean behin horrelako espektakuluren bat ikustea beharrezkoa gertatzen zaigu. Horrekin ez dizut esan nahi harro-

kerian eta luxuan erori behar garenik, baina herri batek gorengo instituzioren bat behar du, eta goralduak eta errespetatuak izateko, dinitate batez hornitu behar zaie, erritual batez, jai baten kolorez. Zuek, euskaldunok, ez duzue puntu hau behar bezala tratatzen, eta benetan diotsut, hain kaltegarria dela luxu eta koplakeria gehiegia, batere ez edukitzea bezala. Harrokeria eta baldarkeria, biak dira baztertu beharrak.

—*Beno, eta zer geratatu zen Disraeliz?*

—Ongi. Erregina berriarekin hauteskunde legislatiboak beharrezkoak ziren. Dagoeneko, esan nizan bezala, Disraelik ba zuen izen bat, eta kanpaina hasi baino lehen, distritu seguru batzuetarako eskaintzak egin zitzioten toriek. Wyndham andreak bere senarra Lewisekin batean Maidstone distrituan aurkez zedila eskatu zion, eta andre honen laguntza baliosa bide zela, Lewis eta Disraeli garaile irten ziren. Hainbeste lan eta neke sufritu ondoren, hainbeste aldiz bere burua aurkeztu eta hauteskundeak porrot egin ondoren, ba dugu Benjamin Disraeli diputatu bezala aukeratua. Bi hilabete faltatzen ziren parlamentua zabaltzeko arte eta bere aitaren etxera, Bradenhamera, joan zen. Han, Londreseko zaratetatik eta intrigetatik urrun, Ingalaterrako paisaia berde sorgin hartan, behar zuen bakea bilatzen zuen. Bakea eta babesa, sormen



bortitzaren iturri. Belardi bakarti haik, zuhaitz eta loreak, txorien txorrotxioak, mila koloretako tximeletak... Zein mundutan zegoen? Han ez zegoen Londreseko saloietan praktikatzen zen azpijoko eta maltzurkeriarik, hain usu zitzairen irain ez kalumniarik. Bradenham-ena dena zen argi, nahiz eguna lainotsua atera, dena garbi, nahiz egun euritsueta bidexkak ibilezinak bilakatu...

—Txo! Ba al dakizu oso poetikoa bilakatu zarela?

Disraeliren itzalak hasperen bat bota du.

—Giroak, lagun, giroak bere eragina du. Eta Iratiko oihan honek Bradenham gogoratzen dit... Bena, goazen aurrera. Victoria erreginak bere lehen ministriria jadanik aukeratu zuen: Melbourne. Garai hartan, ferrokarrilak lehen aldiz funtzionatzen hasi ziren, eta hasieran jendeak beldurrez eta prebentzioz begiratzen zien. Disraeli Londresera joan zen. Parlamentuan, torien buru zen Robert Peel-en atzean esertzea tokatu zitzaion. Gobernua whig zen, liberala. Beraz, Disraeli, toriak, oposizioan zeuden. Liberalen buru parlamentuan lord John Russell zen. Beraz, ikus dezakezunez, historian eta batez ere ekonomia politikoan izen handi bat lortu dituzten gizonak, izan illustreak. Lord Merbourneren gobernua indartsu agertzen zen. Disraeli kikilduta bezala, lehen egunetan ez zuen hitzik egin. Egunak aurrera zihoazen eta bere balioa adierazi nahiaren irrikia areagotu egin zitzaion. Aukera, hain korapilotsua zen Irlandaren arazoaren inguruan etorri zitzaion. Spottiswood izeneko diputatu batek Irlandako protestanteen aldeko subskizio bat zabaltzea proposatu zuen. Hori zela eta, Disraelik hitza eskatu zuen eta lehen aldiz parlamentuari zuzenduko zitzaion. Zutitu eta bere itxura estrainioa nabaritu zen, hain urruti ingeles klasikotik. Jantzera ere ikustekoa zen: berde botila kolorekoa, txaleko zuria urrezko kateaz hornitua, buruan ilekiribilak, tirabuzoi bitxiak, gorbata beltz handi bat... Kuriositatez begiratu zuten, eta errezeluz. Bere ahotsa fortzatua zen eta hainbeste denboratan pentsaturiko esaldi dotoreak jaurtitzen hasi zen. Bere afektazioa eta itxura, barrezka hartu zuten. Disraeli izutu egin zen. "Zergatik egiten didazue barre?" Barre handiagoek eta jeneralagoek erantzun zioten. "Zergatik inbidiatzen nauzue?" Barre handiagoak. "Ez dago barre egitea baino

gauza errazagorik". Izugarriko barre algarak. Disraeliren bekotik izerdi tantak jausten hasi ziren. Hura ez zen berak espero zuen debut dirdiratsua. Berak uste zuen denek ahoa zabalik entzungo zutela parlamentuan inoiz entzun ez zen mailako diskurtsua, sekulako arrakasta lortuko zuela, eta horra non barrezka eta irrika hartua. Bere senetik irtenda, prestatu zuena ezin esanik, ahots fortzatua utzirik, trumoi baten eran diputatuei zuzendu zitzairen: "Orain eseri egingo naiz, baina entzun egin beharko didazuen eguna ere heldu egingo da!"

—Londreseko parlamentuan ohitura zen, lehen aldiz hitz egiten zuten diputatuei begirunez eta simpatiaz entzutea. Disraelirena, aparteko kasua zen.

—*Bai, hori esaten dute historikoko liburuek eta horrela da. Disraeli jota irten zen. Bere karrera politikoa hondatuta ikusten zuen. Kontra jarriko balira, bereziki oposiziokoak, normal litzateke. Baina irrigarri gertatzea, pailazo bilakatzea... hori politikari batentzat azkena iruditu zitzaion.*

—Baina ez zen horrela gertatu, ez. Zuen, gizonezkoon bizitzaren maiz gertatzen den bezala, zerbait gaizki irten zaizuela uste duzue-nean, ondoren hobeagoak jarratzen dizkiete. Disraeli maiz aurkitu zen ere horrelako kasuetan. Zerbait asmatzen zuen, praktikara eramaten zuen, eta porrot egiten zuen. Orduan, hondatuta gertatzen zen, baina ondorio bezala, beste gertaera hobeago baten iturri bilakatzen zen une latz hura. Oraingoan ere berdin gertatu zen. Disraeli ohituraz kanpo hartua izan zen, gupidagabeki, eta diputatuak kulpabilitate zentzazio batekin irten ziren, Disraeli frakasuarenarekin irten zen bezala. Erreparazio bat zor zioten. Horregatik, astebete beranduago Disraeli autoreen eskubideei buruz hitz egiteko zutitu zenean, ganbara osoa espektazioz bete zen. Diputatuen jarreretan, Disraeli txalotzeko joera nabari zen, baina Disraelik ez zuen diskurtsu dotorerik bota, fama zuenez. Itxaroten zuten bere balioa frogatuko zuela diputatu-literatu hark, baina hitz soil eta justu batzu besterik ez zituen esan. Ez zuen entzuleria hasetu. Gosez utzi zuen. Eta proiektuaren egileak Disraeliren ideiak kontutan hartuko zituela esan zuen. Sarah arrebari idatzi zion: "Hurrengoan txalo zartaden artean eseriko naiz."

Xabier Gereño



BRIGADA GORRIAK ETA ITALIAKO POLITIKA

Italian, martxoaren 16an, Brigada Gorriek Aldo Moro sekuestratzen dute. Ia bi hilabete geroago beren eskutan dute gizon politikoa. Lerro hauk idazten ditudanean, oraindik ez daki inork zer gerta daitekeen.

Brigada Gorri hauk, sekuestro honen aurretik ere, ez zituen inork txantxetan hartzen. Gutiago orain iraupenean erakutsi baitute beren benetako indarra. Italiako Estatua bera ikaraturik eduki baitute.

Maisutasunez jokatu dutenik nekez uka daiteke. Sekuestratzera-koan eta gero. Izan ere, seinalatua zen eguna, se inalatuagoa pertsonaia.

Noiz bahitzen dute Aldo Moro? Gehiengo berriaren programa Parlamentuan onhartu behar zen egun berean. Egun hori, gainera, Frantziako hauteskunderen bigarren ekinaldiaren aurretikoa zen. Eta gizona? Italiako politikan pertsonaia-ardatza; 30 urtetako agintaritzaren sinboloa; Italiako Kristau Demokraziaren eraikilea, eta gainera egun horretan bertan baietza hartuko zuen programaren egilea. Brigada Gorriak ba zekiten zertan ari ziren: Aldo Morori heriotz zigorra eman, horrexegatik eman zioten: "Kristau Demokraziaren agintaritzaren erresponsible bezala, bere Estatuaren gestioak proletargoari ekarri dizkion kalte guztien-gatik".

NORTZU DIRA BRIGADA GORRIAK?

Harriturik denak, eta beldurturik asko eta asko utzi dituzte Brigada Gorri hauek. Misterio bat bezala sortu da hauen inguruan. Ezagutzen zituela uste zuena ere, esplika-ziotan motz gelditu da. Mila esplika-zio moeta dago, holakotan beti gertatu ohi denez. Ez zenbat, zeintzu eta zer diren daki inork, antza. Iraultzan sinesten duen talde komunista bat dela, hori bai. Eta gero?

Hauen indarrak, maisutasunak, efikaziak harritu ditu gizarte-aztertzaileak. Alemaniako Baader-Meinhof-zaleak, poliziaren ekintza ondoren, ez dute bururik altxatu. Italian ere beste hainbeste gertatuko zela uste zen: Brigada Gorriak harrapatuak izan baitziren, Milanen epaituak, kruadroak deseginak, haien harreman sarea hautsia.

Kalkulu guztien aurka, gogor jo dute Brigada Gorriek. Nola antolatu dira hain azkar? Hain denbora gutian nola harmatu dira atzera? Nongo laguntzak dituzte? Zeinen kolaborazioa? Halebria, nor dago Brigada Gorrien atzetik?

Norbaitek ezkutuan manipulaturiko marionetak direla esatea, gehiegi da: inork hori ere esan du. Komentarista gehienak ez daude eritzi horrekin ados. Kolaborazioaren hipotesia, ordea, kanpoko laguntzak izan daitezkeela tartean, halebria, eritzi hori arras zabaldua dago, eta seriotan hartua.

Nor egon daiteke arazo honen atzetik? Gertatzen dena gerta dadin nork du interesik? CIAren eta KGBren itzala, biena, agertzen da atzetik. Brigada Gorrien estrategia eta aginte boteretsu batzuen jokoa bat etor daiteke, eta, beraz, kolaborazioaren bat sortu ere bai. Nonbait, Brigada Gorrien gela batetan, informazio oso sekretu eta konfidentzialak aurkitu dituzte. Ba dakigu zeintzu izan ohi diren informazio moeta honen jabe. Baina



Aldo Moro. Beren azken nahiak Gobernuak ez ditu errespetatu.

kolaborazioaren arazoaz ez dut beste datu zehatzik ezagutzen. Hala ere, salhakuntza eginik dago, bai CIAREN aurka eta bai KGB en kontra. Frogatzea ezinezko izango, da jakina, baina ukatu ere ez du inork ukatu.

Ba dakigu: Italia puntu estrategiko oso inportantea da. Carter-ek ezin du utzi Italia komunisten eskuetan eror dadin. Esana da jadanik. Baina Breznev jaunak ere ez du Berlinguer begi onez ikusten. Eurokomunismoak ez dio batere graziarik egiten, ezaguna denez. Exenplu txarra izan daiteke, Europaren eguzkialdeko herri sozialista

zenbaitentzat, Sobiet Batasunetik aldentzeko guraria sor baitezake. Eta batez ere, Yugoelabia dago aldamenean, Italiaren muga duelarik. Tito zaharra hiltzen denean Yugoelabian zer gertatuko da?

Bi handien interesak bat datozke Italiako kasuan: Berlinguer-en "konpremezu historikoa" arriskugarri da bientzat. Hobe da oraingo indar-oreka. Beraz, Yalta ezkeroz, bi handiek mundua bananduta daukatenez, bakoitzaren influentziaren arabera, sinesgarri da biak akordio batetara kasu hontan ere iristea: Yugoelabian bat nagusi, eta Italian bestea.



Brigada gorriek esker, ez omen dakigu zer nolako bidez, eurokomunismoa nagusitzen den Italian.

ZER GERTATUKO DA ITALIAN?

Brigada Gorrien ekintza honek munta handiko ondorioak ekarriko ditu, zalantzarik gabe. Hautako batzu orain bertan ikusten dira. Gutxi barru ager daitezke beste batzu.

Eragin handiena, noski, Italian da. Talde eta erakunde politikotan. Baina lehen lehenik, Aldo Moro berarengan. Bizirik aterako balitz, Aldo Moro politikarako hila legoke. Errepublikaren buru izatek ezin lezake aurrerantzean pentsatu ere.

Alderdi politikoen artean zeinek

izango duen galerarik handiena, ez da gauza zihurra. Batzuentzat, zalantzarik gabe, Kristau Demokrazia izan da zigortuena. Hau baino ere gehiago jasan duela Alderdi Komunistak, diote beste batzuk.

Bistan da: Kristau Demokraziak egurra hartu du oraingoan. Barne-rik kraskatzea lortu dute Brigada Gorriek. Alde batetik, Aldo Moro kendu diote. Ezaguna denez, Aldo Moro zen alderdikiko joerak biltzen eta bakeak egiten zituen: aginte handia zuen barnean. Beste aldetik, Aldo Mororen bizia negoziatu behar zen ala ez hauzia izan da larrienetakoa. Demokraziaren

barruan, Mororen familiarekin batean, honen biziaren truke Brigada Gorriekin zerbait egitearen alde agertu dira batzu. Baina talde nagusia, negoziaketa moeta honen kontra, Gobernuak aurretik hartu zuen erabakiaren alde agertu da sokatira askoren ondoren. Horrikin, Kristau Demokrazia ahulzatu lortu dute Brigada Gorriek.

Baina PCI, Italiako Alderdi Komunista, ez da hobe ateratzen gudu honetan. Askoren ustetan Brigaden ekintzak Alderdi honen aurkako akzioa ematen du. Berlinguer-en "konpremezu historikoa" hauzitan eta arriskutan gelditu da orain. 30 urte zain egon ondoren agintera jotzeko aukera berriz galdua dirudi. Zergatik galdua?, galde dezake norbaitek. Kristau Demokraziaren eskuina nagusitzen bada orain, nekezago gertatuko zaio Alderdi Komunistari beste Alderdi honekiko lankidetzari Hori bateko. Eta besteko, noiz gertatzen da Brigada Gorrien bahiketara? Hain zuzen, gehiengo programatikoari Parlamentuan baitza emango zitzaion une berean. Alderdi Komunista, horrela, aurpegia galdu gabe, agintebidean zegoen Aldo Moro asmatu zuen kolaboraziomodu horri esker. Konpremezu historikoa hezurramitzeko biderik erosoena zen hori. Orain deus ez. Aldo Mororen kontrako operazio hori konpremezu honen aurkako muntaia bailitzen ulertu du askok. Gainera, Brigada Gorrien aurkako kanpainagatik, eta agintea hartu nahiagatik, bere ezker aldean defentsarik gabe, bilutsik uzten du Alderdi Komunistak. Hortik, kritikak eta hor Brigaden habia.

Bada besterik ere oraindik. Dena aztertzeak luze joko liguke bai, eta aipatu dugunarekin punturik larrienak ukitutzat eman genitzake. Luzarora begirako beste kontsiderazio bat egin gabe ezin utzi, ordea. Estatu mailan zer ondorio ekar lezake honek? Faxismoa eta gerra zibila ere, ahopetik gutienik, aipatuak izan dira. Terrorismoaren arrazoiak axalekoak ez baino oso sakonak eta funtsezkoak direla aztertzeraz joko al du klase politikoa? Ez da segurua. Seguruagoa beste hau dateke: Errepublikaren defentsak gogortu egin nahiko dituztela. "Germanizazioa", halebria, polizia eta kontrola indartzea, kontrolbideak ugaltzea. Hau izan liteke ondorioz gertakarriena, ez Italia mailan bakarrik, Europa mailan ere bai.

Horregatik goiz da oraindik Brigada Gorrien ekintzaren ongaitzak behar den neurrian epaitu ahal izateko. Irentsi ahal izateko, Europako demokrazientzat eupada eta desafio handiegixoa da. Zein izango da hauen erreakzioa?

Joanes Lekerika

anaitasuna

euskal herriari,
informazioa
euskaraz.

EUSKAL PRENTSA
EUSKALDUNON HITZA

zeruko
ARGIA

GEU
GARA
EUSKAL
PRENTSA

anaitasuna

zeruko
ARGIA

EUSKAL UNIBERTSITATEA ETA ARKITEKTURA

Euskal Herri langilearen unibertsitate "hori" eraikitzea kostatuko zaizkigun gauzetarik zailenetarikoa dateke. Ez baikatoz bat ez unibertsitate hori zertan izango den argitzekoan, ez bertara heltzeko bidean hartu behar ditugun neurriak estabaidatzeko orduan.

Euskal unibertsitatea mila aldiz atera dugu mahaira gure hitz eder eta asmo liluragarriak lau haizetara aldarrikatzeko, baina oso guttitan dugun indarra eta ditugun posibilitateei irteera hedatu eta planifikatu bat emateko.

Adibidez, azter ditzagun gure unibertsitateetako kultura taldeek daramatzaten ekintzak eta abar... Garbi dago gehiago egin genezakeela, "gehiago" diot..., eta leku batzutan ZERBAIT esango nuke, ez baita ezer egiten.

Ez gara hemen soluziorik emateko inor baina prest egongo ginateke azterketa sakon bat egiteko... Hone-tarako aurtengo Udako Euskal Unibertsitatea dugu aukera ona hau estabaidatzeko.

Euskal unibertsitateak hamaika arazo ukanik, Donostian aurten sortua den arkitektura eskolarenak azalduko ditugu pixka bat. Zenbaitentzat ez da oraingo hau albiste berri bat, baina egunkarietan zer-bait idatzi bada ere, arkitekturakoek dituzten arazoei luzeago aztertze-koak deritzegu.

"Fakultate" hau lortzeko hartu den bidean, nolabait harrigarria izan da, formalitate eta burokrazia guztietatik at atera baita.

Ihazko ikastaroan atera zen ideia. Bartzelonan ikasten ari ziren batzu, Luis Peña Gantxegi hemengo fakultateko zuzendari jaunarekin asmo hau lantzen hasi zirelarik. Orduan, aipatutako jaunak lagun-



duko zuela zioen, eta hala izan da, berak jarri baitu gogo eta lan gehiena, arazoaren gestioa eramanez. Diru eta leku arazoa ikasleen esku gelditzen da.

Bestalde, Orio Bohigas jaunak, Bartzelonako unibertsitatetako errektoradutza lortu aurretik, bera aukeratua izanez gero laguntza eskainiko zuela baieztatu zuen. Geroxeago, Madriletik aukeratuko zuten, eta, esan bezala, "ideiari" bide librean eman zion.

Baimena lortu ondoren, ez zegoen proiektu handi bat egiteko ahalmenik, nahi eta nahi ez boskarren kurtsu batekin hasiko zela erabaki zen. Azkenean, boskarren kurtsuaren urbanismo adarra irakastea lortzen da.

Guzti hau aurrera ateratzeko, garrantzi handikoa izan da Gipuzkoan arkitekturari buruzko aste kulturalak eta lanari jo eta ke zebilen arkitekto talde baten laguntza. Lehen mementutik bultzatu zuten ideia eta egun ere irakasten eta lanean dihardute.

Ikastetxea lortzeko, Donostiako udaletxera eta diputaziora jo ondoren Villa Yeyette —Berazadi zenaren etxea— eskaini zieten lehen kurtsurako klaseak antola zitzaizten. Kurtsu honetarako erabil zezaten bakarrik, zeren etxea Intxaurrenondoko haizategian egonik, eta nola haizategi honek ekipamendu urbano gutti duen, kurtsua bukatu eta gero, gau eskola, ikastola eta bestelako beharrezanetarako erabili beharko zutela.

Beraz, kurtsua martxan dago, eta 28 ikasle ari dira ikasten.

Lehen esan bezala ikasle hauen lana funtsezkoa izan da fakultatearen bilakaeran, firmak biltzen, bazarreak antolatzen, diputazio eta udalarekiko gestioak arintzen, etabar ekin baitzuten, asmoa besterik ez zena egia bihurtu zedin.

Geroari begira dituzten arazoak ez dira gutti, eta haietarik garrantzitsuenak, beste edozein gauzetan bezala, beti ohi denez, diruarena da.

Donostiako udalak eta diputazioak dirua prometatzen zuten. Diru horretatik, ez esan zuen beste, baina diputazioak laguntza eman du, udalaren dirua berriz ez da arkitektura eskolan ikusi. Ondorioz, zorretan daude eta irakasleak ordaintzeko, etxearen instalazioak mantentzeko, Bartzelonatik etorri behar diren irakasleak ordaintzeko eta gauzak, nolabait, behar direnez zuzentzeko dirurik ez dago.

Aurrera egin ahal izatea diruaren arazoan oinarrizten da, dirurik ez badago, ezin irauten. Hala ere, oraindik ez dago ezer argi, kurtsua non eman ere ez dago; baina dena dela, soluzionetarako delakoan daude.

Arabako diputazio foral, Gasteizen bertan egiten bada, dirua eta lekua eskaintzen ditu, baina ba dirudi ez dagoela Donostiatik ateratzeko asmoa. Consejo General Vascoak ere lagundu behar omen du...

Donostian egon ba dago "Patronato de Estudios Universitarios de Gipuzkoa" delako bat eta, hain zuzen, honi dagokio laguntza eskaintzea; hauen laguntzaren zain gelditzea oso gomendagarria ez denez gero, bete beharko lukeen funtzioa beteko duen fundazio edo antzeko bat eratzea pentsatu da, dirua eskuratzeko helburuarekin eta arazo hauetara konponbide azkarrago bat eman diezaien.

Guzti honetatik kanpo kurtsu haserako lehen bileretan euskarazko klaseak bertan emateko ideia agertu zen eta, onhartu bezain laster, fakultateko zuzendaritzara eraman zen, goizean eta ikastorduetan izan beharko zuela proposatuz. Irakasleak ere prest ziren eta, beste ostoporrik gabe, martxan jarri ziren, fakultateko presupostua euskararen finantziatzeko gaituz.

Alfabetatze eta euskalduntze mailak ematen dira eta ba dago arkitekturaren hizkuntza teknikoa lantzeko asmoa eta ELHUYAREKOekin harremanetan hasteko, baina hau burutzeko problema asko dago. Bestalde, hemengo arkitektura eta arkitektoen lanak eta historia sakontzeko asmoa ere ba dago... Aizpuru... eta abar.

Beraz, asmoak eta lorpenak dakuskigu; dena ez da asmo hutsa, arkitektura eskola ibiltzen abiatua baita. Nondik nora joko duen, denon eskuetan dago.

Betiko baldintzaren aurrez aurrez gara hementxe ere; etxagintza menperatzen duten enpresa pribatuek ezarritako kontsumismoa eta eskaintza eta demandaren legepeko arkitektura horren hildotik jarraitu ala hauzko elkarteak eta herri hirigintza arrazionalago bat bultzatuko duen arkitektura askeago baten alde burrukatu.

Ba dira arkitektura jatorrago baten ereduak, hots, Austriako gobernu sozialdemokratik Vianan eraiki zituen langile haizategiak, izugarri ondo projektatu eta urbanizatuak.

Noren eragintzaz egiten den halakoeak izango dira gauzak. Bistan ditugu betiko jauntxo eta inisiatiba pribatuaren eskutatik lortu ditugun haizategi eta hiriak! zein ongi urbanizatuak egin dizkiguten etxeak...! eta zein goxoa den Bilbo, Errenderi, Barakaldo edo Eibarreko bloke, zulo lohien eta abarren artean bisitza!

E. Enziundo



UDAKO VI. EUSKAL UNIBERTSITATEAREN ATARIAN

Uda hurbildu ahala, kaleratzen hasi da Udako Euskal Unibertsitatea. Seigarren saioari tokatzen zaio txanda aurten. Urtean zehar, lan isil eta etengabez, burututako asmo eta lanak argitara azalduko dira udan. Ekitaldi oparoa izango delakoan ari gara.

PROGRAMAKETA

Bide berriak urratzeari baino gehiago ekingo diogu ihaz irekitakoen finkapenari. Udako IV. Euskal Unibertsitatearen balantzea egiterakoan, Ustaritzen, aho batez onartu zen ekitaldi orokorretatik ikastaro berezietara igaro beharra. Ihazkoa izan zen modu honetara egokitutako lehena. Esperientzia hau oso positibotzat jo zuten gehientsuenek eta aurten ere bide beretsutik abiatuko gara. Xede honetatik, beraz, horela moldatu ditugu U.E.U.ren ekitaldi nagusiak:

Ikastaldiak. Goizez emango dira. Hiru ordu egunoro. Gaiei dagokienez, lau multzotan banatu ditugu.

— *Zientzia zehatzak:* Matematika, Fisika, Kimika.

— *Hizkuntzalaritza:* Morfosintaxia, Fonetika/Dialektologia, Euskal literaturaren historia.

— *Medikuntza/Biologia:* Psikosoziologia/Psikiatría, Medikuntza, Fisiologia, Antropologia.

— *Gizarte Zientziak:* Ekonomia, Historia/Arte, Soziologia, Pedagogia?, Filosofia?

Mintegiak. Arratsalde, mintegietako lanari ekingo diogu, batipat. Goizeko ikastaldietan ari den talde bakoitzak eraturiko ditu arratsaldeetako mintegiak ere.

Mintegi batzu amankomunean ere egingo dira. Zientzia zehatzetakoek, adibidez, ba dituzte zenbait mintegi batera egiteko programatuak.

Ba dira, baita ere, ikastaldietatik landa egingo diren mintegiak ere, hala nola emakumearen problematikari buruz pentsatutakoak.

Ekitaldi atsedengarriak: Gauetarako pentsaturik daude. Zinema, antzerki, kontzertu, poesia errezital, bertso saio, pailasoen ekitaldi... eta antzerakoak daude programaturik.

XEHETASUN BATZU

Tokiari dagokionez, berriz ere Nafarroan egitea erabaki genuen aspaldidanik. Bi arrazoi erabili genituen, batez ere, horretarako. Batetik, Euskal Herriak Nafarroarekiko daraman jokabide praktikoa. Hitz ederrez eta asmo beroz dirudienez, baina orain arte sortuz doazen erakunde guztietatik kanpo utzi dugu Nafarroa; batez ere, eta U.E.U.ri hurbilenetik dagokionez, Unibertsital Barrutitik kanpo. U.E.U.k ez du, agian, zokoratze honi buruzko ekin-

tza erreibindikatzailerik bultzatuko, baina bere presentziaz guttienez Nafarroara eramango du. Bestetik, azplegituragutienezkoa ere behar du U.E.U.k. Nafarroak ihaz egingo du harrera eta emandako laguntza, beraz, kontutan hartu ditugu U.E.U.ren prestatuketak egiterakoan.

Egunei dagokienez, uztailearen 17tik 29ra izango da Udako VI. Euskal Unibertsitatea.

Beste zenbait xehetasun komunikabideen bitartez ahal dugun gehien barreiatzen ahaleginduko gara.

U.E.U.ren DEIAK

Idazti hau amaitu aurretik, hiru bat dei egin nahi genituzke.

— Lehenengo, euskal irakasle eta ikasleei, guztiek U.E.U.n parte har dezaten. Euskal Unibertsitatea ez dugula egingo, ez kontzientziaz, ez gogoz, ez eskabide soilaz. Euskal Unibertsitatearen koadroak geuk prestatu beharko ditugu. Euskal unibertsitarien portzentaia txikia eta ez besterik euskalduna denean eta hauetatik huskeria bat bakarrik alfabetatua; euskal irakasleak Unibertsitatean bakar batzu diren bitartean, Euskal Unibertsitateatik urrun gaudela aitortu behar dugu. Eta ez dezagun pentsa besteek hurbilduko digutenik; geuk eskuratu beharko dugu, hein handi batetan bederen. U.E.U.k, urtero bezala, bere aukera apala eskaintzen dizue.

— Gorago agertzen den programaketa ikustea aski da gure mugatasunez jabetzeko. U.E.U., halaber, oso mugatua dugu. Bestalde, ohartzen gara euskarak eta euskal kulturak dituzten premia larrien aurrean, beste zenbait iniziatiba eta burubide sor daitezkeela guk kontutan hartu ez ditugunak. Horrexegatik, egunoro bi ordu libre egongo dira arratsaldeko 6tatik 8tara. Tarte hori euskal kulturaren alorrean zerbait proposatu nahiz egin nahi lukeen edonori eskaintzen diogu. Euskal kulturaren alde lan egiteko hurbiltzen den guztia, nornahi dela, onartua izango da.

— Diru beharrari buruz ere, nahitaez zerbait esan behar. Ikastolak ala C.G.V. bera diru gabe daudenean, ez da inor harrizko U.E.U. txori txiki gabe dagoela entzutean. Krisialdian gaudela, diru eskabideak multiplikatzen ari direla eta abarren berri geuk ere ondotox dakigu, jakin. Baina beste zerbait ere azpimarratu nahi genuke. Ihazko saioari buruz U.E.U.k argitara duen txostenean, argi ikusten da probintzia ezberdinetako erakunde berdinek nolako laguntza ezberdina eman zuten. Beraz, batzu eskertzen ditugun heinean premiatzen ditugu besteak beste euskal gizartearen premiei zor dien laguntza uka ez diezaieten.

Erantzun oparoa izango dugulakoan gaude.

U.E.U.ren idazkaritzak

EUSKALTZAINDIA

1978eko BAI EUSKARARI kanpaina

KANPAINAREN HELBU

Lehiaketa kultura eta euskara erabiltzen duen EUSKALTZAINDIAK "Bai Euskarari" kanpainaren ezaugarriak Euskal Herri zabalean egiten duen kanpaina bat. Honen helburua dirua lortzea da eta euskararen guztiok batzea gure kultura eta hizkuntza sendotzeko.

ERTAN OINHARRITZEN ERABAKI HAU

Lehiaketa dakigun bezala, labur eta erakargarri izan behar du, hontan datza, euskal kultura eta hizkuntza eagoera larri batetan erabiltzen zaizkigula. Bene erabakia euskara toki askotan erabiltzeko dugu egungo kanpainak hainbat mailatarako erabakia ahalmen gabe, halerako zientzi, merkatal, teknologiko (pedagogia) eta abarretarako.

Lehiaketa, kultura ere baztertu behar dugu gureak ez diren erabakia era kanpotik jasoz. Kanpaina honen aurrean, EUSKALTZAINDIAK, guztiau erabakia ondoan, lan serio eta erabakia egitea erabaki du.

1978ko AURRERA JOTZEKO ERABAKI DEN

Lehiaketa kultura eta euskara erabiltzeko hainbat proiektu arautu ditu EUSKALTZAINDIAK.

Euskal Herri osoan euskara maila guztietan hedatzea.

Lehiaketa tokiak lortzea bai akademi ekintzetarako, burutegi, artxibo, eta erakundeak.

Sistema modernuz banku eta linguistikoak jaso eta berrialdere denetara Unibertsitate mailan ikasketak burutzeko.

Maila guztietarako irakasleak prestatzea.

Gure inguruko irakasle guztiak behar diren tresnak izan eta gerta daitezkeen EUSKALTZAINDIARI

erabakia lanak aurrera eramateko (Hiztegigintza, gramatika, textugintza...). Lan argitaratzea bai euskal klasikoak, bai egungoak. Erabakia eskaintzea.

Lehiaketa beste zenbait arazo EUSKALTZAINDIARI erabakia lanak ongi burutzeko.

1978ko AURRERA JOTZEKO ERABAKI DIREN BALIABIDEAK

Lehiaketa aurrera eramateko diru laguntza behar du EUSKALTZAINDIAK, une hontan erabakia ere ia ez baitu.

Lehiaketa urteko presupuestoa, erabakia, ez da ia dituen zerbitzu erakundeak betetzeko heltzen. Honela, 1974ean, bakarrik 1.440.000 pta. lortu ziren.

1975ean 1.918.000 pta.



1977ean 6.092.000 pta. Ekintza hau aurrera eramateko, gutxienez 35 milioi behar dira beharizan larrienei erantzun dexente bat eskaintzeko.

Dirutza hau, EUSKALTZAINDIAK ez du inondik inora eskuratzetik. Honengatik Euskal Herri osoan bizi garenon laguntza eskatzen du guztioi dei larri bat eginez denon artean euskal kultura eta hizkuntzari, egun, dagokion bultzada emateko.

V. KANPAINAREN ESKE-RRRA

BAI EUSKARARI kanpainak bi isurbide aurkeztzen ditu: bata, Euskal Herriari bizi garenon kontzientziapena mezu batzuren bidez ezarritako kezkekin bat egiteko; eta bigarrena, ikuskizun batzuei eskainiz jendetza bildu, berauetatik dirua jasotzeko. Ekintzok data baten barnean izango dira eraturiko ekintza guztiak burutzeko "EUSKARAREN EGUNA" lematzat harturik jendeaurreko eskakera hedatu bat ospaturik.

V.1. Lehen isurbidea

Kontzientziapen hau aurrera eramateko publizitate klasi-koz baliatuko gara. Hontarako erabiliko dira: Egunkariak, aldizkariak, Irrati eta publizitate ageria. Honen iraupena hilabete osoa, Maiatzaren 14tik Ekainaren 16arte, Euskal Herri osoan hedatuz. Mezuak, Euskal Herriko egunkari, aldizkari eta beste homunikabideetatik zabalduko dira.

V.2. Bigarren isurbidea: jendeaurreko ekintzetan diru batzea

Diru hau era hontan batuko da, halebila, jendeaurreko ikuskizun sarretatik aterata eta baita zenbait gauza saldurik, hots, kamisetak, eranskailuak, etab. Lehendabizi ekintzok: Kantaldiak Euskal Herriko hiriburuetan, kirol ekintzak lehen maila edo lineako ekipoen artean.

VI.

Kanpaina honek duen garrantzia helburutzeko, eta Euskal Herriari bizi garenon artean, dei berezi eta latz bat egitea behartu gaitu EUSKALTZAINDIAK zuen laguntza eta eskaintza jasotzeko iturriak.

Lehiaketa zernolakoak izan diren adieraziz informaketa labur bat bidaliko zaie.

10 gn. Lehiaketa honi buruzko gutun-harremanik ez da izan.

11 gn. Lehiaketa honetan sartze hutsak, beste gabe, partaideak oinarri hauek onartzeraz behartzen ditu.

12 gn. "Urantzuko Hiria" 1978'eko Literatur Sariak ondoko alorretan banatzen dira:

Guipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak, bere Ageriko Harreman eta Marketing Zerbitzuaren bidez, 1978.eko "Urantzuko Hiria" Literatur Sariak eratzten ditu, ondoko oinarri hauen arabera:

1 go. Lehiaketa honetan nor-nahik har dezake esku, zer nahi den haren adina, egoitza eta nazionaltasuna.

2 go. Lan lehiakideek jatorrizkoak eta inon argitaratu gabek behar dute izan.

3 gn. Lanon lehen-idazkia eta bi kopia bidaliko dira, goiburuan, egilearen izen-zuzenbideak estalki hertsiki batetan erantzen direlarik; kanpoko aldean goiburua edo ezaupidea adierazi behar da eta barnean lehen aipaturiko pertsona xehetasunak. Baldintzapen hauek betetzen ez dituen lanik ez da onartuko.

4 gn. Lehen-idazkiek, 1978.eko Uztailaren 30.eko 13 orduak baino lehen igorriak behar dute izan, honako helbideetara: **Guipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala** (Ageriko Harreman eta Marketing Zerbitzu), Garibay 13, Donostia, edo Instituzioaren Urantzuko edozein sukutsaletara: Colon Ibilbide, 20; Avda. del Generalísimo, 8, Behobia; San Miguel Plaza; Iñigo de Loyola, 2; Avda. de Navarra, 2-4.

5 gn. Literatur alor guztiarako epaileak Guipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak izendatuko ditu.

6 gn. Sariak erabakitzea Urantzuko hirian egiten da, 1978'eko Urriaren 28'an.

7 gn. **Guipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala** jabetuko da saritutako lan guztiez. Beronen esku izanen dira argitaratze eskubide guztiak ere.

8 gn. Lehiaketako sari erabakitzea egin ondoren, isilpeko estalkiak ireki eta aurkezturiko lanak berauen egileei emanen zaizkie atzera berriz.

9 gn. Partaide guzietan lehiaketa eta bai era-

EUSKAL POEMAGINTZA

"José de Arteche Saria"

Hitz-erorkera, neurria eta gaia norberak aukera ditzake. Lanak guttienez 600 neurtiz adinakoa behar du izan. Saria haxe izanen da: **Gaztelua eta 125.000 pezeta.**

EUSKAL SAIKERA

Lanen guttienerako hedadura: 100 folio mekanografiatu, tarte biko lerrotan eta orrialde bakarrean idatzirik. Lanek egungo munduaren arazoren bati buruzkoak behar dute izan, soziologi, ekonomi edo histori ikuspegi batetan oinarriturik. Alor honetan ondoko saria emanen da: **Gaztelua eta 200.000 pezeta.**

EUSKAL ELABERRIA

Lanen guttienerako hedadura: 125 folio mekanografiatu, tarte biko lerrotan eta orrialde bakarrean idatzirik. Alor honetan ondoko saria emanen da: **Gaztelua eta 250.000 pezeta.**

GAZTELERAZKO POEMAGINTZA


Hitz-erorkera, neurria eta gaia norberak aukera ditzake. Lanak guttienez 800 neurtiz adinakoa behar du izan. Saria haxe izanen da: **Gaztelua eta 125.000 pezeta.**

GAZTELERAZKO SAIKERA

Lanen guttienerako hedadura: 100 folio mekanografiatu, tarte biko lerrotan eta orrialde bakarrean idatzirik. Lanek egungo munduaren arazoren bati buruzkoak behar dute izan, soziologi, ekonomi edo histori ikuspegi batetan oinarriturik. Alor honetan ondoko saria emanen da: **Gaztelua eta 200.000 pezeta.**

GAZTELERAZKO ELABERRIA

Lanen guttienerako hedadura: 125 folio mekanografiatu, tarte biko lerrotan eta orrialde bakarrean idatzirik. Alor honetan ondoko saria emanen da: **Gaztelua eta 250.000 pezeta.**



EKONOMI KRISISA ETA EMAKUMEA

Nondik dator ekonomi krisisa hau? Kapitalistek esaten duteenez, langileengandik. "Grebak eta alokairuen igoera dira krisisa sortzen dutenak".

Baina, egoera ekonomiko hau, ez da Euskal Herrian bakarrik sortzen. Ikus dezagun ba, nondik datorren benetan krisisa hau eta honek dakartzan ondorioak.

1929.ez geroztik, ez zen nazioarteko mailan horrelako arazo larririk agertu. Gaur egun sofritzen dugunak, bere hasiera 68.ean izan zuen. Lehendabizi tikiak izan ziren krisiak handiagotu egin dira. Petrolioak izan du zerikusirik dudarik gabe, baina ez "arrazo" bezala erabili duten mailan.

Langileriak, daraman borrokaren bidez, alokairuen zenbait igoera lortu du eta kapitalistarentzat, berak pentsatu adina ez badu irabazten ez du errentabilitaterik aurkitzen inbertipen honetan.

Entrepresa handiek, ez dute krisisaren ondorio hau nabaritzen, tikien gainean erortzen baita horien pisu osoa. Handiek berriz, egoera honengandik iraziaz ateratzen dituzte, lehendabizi krisisaren kolpea hautsi eta gero, behin entrepresa tikiak urperatu ondoren, berak izanen baitira jaun eta jabe!

Azken hamar urte hauetan, estatu mailan, langileen alokairuak, proportzionalki, kapitalisten irabaziaz baino igoera handiago bat izan dute. Baina kapitalaren barruan, entrepresa handien irabaziaz hartzen baditugu

berriz, hauen irabazien igoera, beti proportzionalki, alokairuena baino handiagoa izan da. Beraz, garbi dakusagu, langileen prezioak erraz hausten dituztela entrepresa handiek eta ez hain erraz tikiak. Gauza bera gertatzen da ekonomi gorabehera guztiekin, kompetentzia, prezioak, nazioarteko merkatua, etab. direla. Mundu osoan, kapitalak konzentrazio prozesu bat darama.

KAPITALISMOAREN KRISISAK

Kapitalista sistiman, krisiak ez dira berriak. Produzioa plangintza bat gabe eramaten denez, aldizka, beti izaten dira krisiak. Burjeseriak ez du lehendabizi beharren estudio orokor bat egin gero produkzio konkretu bat eramateko. Interesatzen zaiena, berriz, hau da: irabazi handiak eta indibidualak lortzea batetik, eta bestetik klase bezala dūten botere ekonomiko eta politikoa gordetzea. Honela, inongo plangintzarik gabe, irabazi handiak lortzen dituzte merkantzia batez, adibidez, baina gero, produkzio gehiegi egin dela, merkatuak ezin duela hainbeste jaso, eta... krisisa! Langileak lanik gabe, kompetentziak baino merkeago saldu behar, kostuak guttiagotu, mugak hertsitu, eta hau, nola? Langileen alokairuak guttiagotuz, prezioak igoz, langabeziaz eta polizia indartuz hauen pro-

testak ixilerazteko. Soluketa hau, beti gure kalterako direnez, ez zaizkigu balio.

SOLUKETA BAKARRA: SOZIALISMOA

Sustraira iristen bagara, beste irtenbiderik ez dago. Krisiak soluketa bakar bat daduka, sozialismoa. Hots, beharrik betetzeko helburuz eginiko ekonomi plangintza bat. Ikerketari posibilitate osoak emanez, zer bitzua hobegotuz, etab. Kapitalista sistiman hori ezinez dugu lortu. Energiaren arazoa dela eta, zenbat interes pribatu saiatazen dira zentrale nuklearretan nahiz eta ondo jakin energia iturri garbiak ba daudela eguzkiar itsasoan eta hibaietan? Medikuntza dela eta, nola onhartuko dute entpresariak, berak eginen dituzten pastilak baino hobea sendatzen dutela gure sorginen belarrek? Automobilaren industriak, ez al luke ahaleginak eginen, aurkituriko garraio modu merkeago eta seguruago bat diruz estaltzeko, ikerketa geraraziz? Esaten digutenez, hau langileentzat ere gaitz bat izanen litzateke... "Zer eginen litzateke entrepresa hauetako langileek?". Baina ekonomia planifikatu batean hau ez litzateke arazo bat izanen. Dagoen lana langile guztien artean banatu eta kitatu.

Desberdintasuna hementzen dugu: interes pribatuen borroka

etik eta herriaren defentsa
etik. Bitartean egoera larri-
ari zaigu kapitalismoaren
herrietan. Ekonomia pla-
katu bat daramaten herrie-
berri, nahiz eta krisisa
aritu -estatu kapitalistekin
armanak dituztelako- ez
zuzenki honen ondorioak
itzen.

MAIN ETA EUSKAL HERRIAN, ZER EGIN?

Entrepresariak zera esaten
ate: "Krisisa hemen dago...
arion artean gandi dezagun"
ien irabaziak guttiagotu
be, noski!-. Irabaziak banat-
ko ez gaituzte kontuan hart-
ena, baina orain neke guztiak
hi dizkigute eman, bat ere gor-
gabe.

Euskal Herrian bereziki, haien
arresak "abertzaletasunez"
hi dituzte jantzi.

"Grebak, kanpotar horiek
tuzten dituzte Euzkadiko
onomia pikutara botatzeko.
ainolista gorri horiek Euzka-
kapitalizatzen ari dira..."

"Zuen boterea ez duzuela
hi nahi ondo konprenitzen
ga, baina mesede, ez deza-
ela abertzaletasun izena
ela zikin... Zuen aberri baka-
dirua da. Eta diru hau gor-
zeko, aberria ere erraz sal-
duzue zuek, hemen, Madri-
eta USAN ere. Nork ateratzen
dirua Euskal Herriak? Langi-
ez, ez gorri eta ez horiek".

"Langileok ez bagara mugi-
ez, ez dute aterako beharba-

Noski, nahi adina irabazten
dute, eta gainera haiek sortu-
ko krisisa gure lepoetan zama-
pozik geldituko dira. Eta
kasa izanen dugu geure
herrian. "Preso daudela? Geldi-
egon besterik ez zuten ba..."
franco-pean, Franco-k esanda-
na egiten zuena, oso ondo bizi
en. Har baten modura... baina
ndo.

BI BIDE GURE AURREAN

Gero eta garbiagoak azaltzen
zaizgu. Kapitalismoarengandik
irizten ditugun eraso guztien
artean, zer egin?

1.-Krisisa, berriz ere guk
ardaindu, gure eskubideak alde
batera utziz.

2.-Borrokan jarraitu, une
akoitzean, atakea ala defentsa
gu jarrera egokiena aztertuz.
ekonomi sistima aldatu ala pak-
bat egin burjeseriarekin?

nik zenbait sindikatu eta alder-
dietako gidariek, Moncloako
Paktu hori izenpetuz. Zer supo-
saten du paktu hau onhartzeak?
Krisisa langileok ordaintzea,
hain zuzen. Bitartean, entrepre-
sariak dirua lasai ateratzen dute.
Ttiki batzuren egoera benetan
larria da -beren langileena nos-
ki-, baina beste batzuk berriz
"krisis espediente" azaltzeko
beharrezkoa den egoera kon-
pontzen dute kontuetan, nahiz
eta egia horrelakoa ez izan,
entrepresaren lurra saldudiruz
gehiago lortzen dutelako, adibi-
dez... eta hainbat langile, kalean.

Beste empresa askok, langi-
lea mehatxatzeko erabiltzen
dute egoera hau, nahiz eta krisi-
saren ondorioak ez nabaritu.

Lanpostua galtzeko dagoen
beldurra esplikagarria da baina
horregatik burjeseriak ezartzen
dizkigun baldintzak onhartzeko
baditugu, beren eskuetan gera-
tzen gara, lehen lorturiko aurre-
rapenak galtzeko arriskuan.

Gaur egun dugun egoerak,
kasu gehienetan ez digu atake
bat eramateko aukerarik ema-
ten. Baina defentsa, behar beha-
rrezkoa dugu. Eta defentsa
honetan ba daude negoziagarri
ez diren errebindikapenak;
"Pertsona bakoitzarentzat, lan-
postu egoki bat" adibidez, horie-
tako bat dugu.

EMAKUMEA, LANGABEZIAREN BIKTIMARIK HANDIENA

Doi-doi burua sartzeko ari
ginela alokatu lanaren mun-
duan, berriro ere gure etxeetan
sartu nahi gaituzte. Arrazoia?
betikoa. "Gizon batentzat beha-
rrezkoa da lan egin eta alokairu
bat irabaztea, baina emakumea-
rentzat ez. Emakumeak etxetik
kanpo lan egiten badu, ez asper-
tzeagatik da... edo etxera beti
ondo datorren laguntzatxoa bat
ekartzeko. Baina orain krisisa
dugu. Gizonentzat lanposturik ez
badago, nola mantenduko dituz-
te emakumeak entrepresetan?"
"Lan egiten duten emakumeak,
gizonoi lana kentzen digute"
"Gizonek familia mantendu
behar dute..."

Emakumeok, jaiotzen gare-
nean pertsona indibidualak izan-
ten gara. Patriarkal gizartean,
jaio ondoren, familia batean alo-
kairu gabeko langile izateko
hezitzen gaituzte. Familia hone-
tan gizona da patroia eta zerbitzu
batzuren trukez, janaria, jantzi-
ak etab. emanen dizkigu. Hor
dugu eskaintzen zaigun lanpos-

luzeago hitzegin beharko dugu,
baina gauza bat esan dezakegu
oraingandik: ez dugu onhartzeko.

Jaio ondoren ere, pertsona
indibidualak nahi dugu izan eta
geure bizibidea GEUK aukeratu,
posibilitate guztiak aurrean ditu-
gula eta bat ere ez ukatuta ema-
kume garelako.

Bizibide honek, hitzak dioen
bezala bizitzeko bide bat baldin
bada, alokatuta izan beharko du
noski, eta ez guztiz edo ia doha-
ko, orain emakumeok egiten
ditugun lan gehienak diren beza-
la. Gauzak horrela planteiatuz,
familian emakumeoi ematen zai-
gun betebeharraren aurka goa-
zela garbi dago.

KRISISAK ARLO GUZTIAK HARTZEN DITU

Krisisa ez da ekonomikoa
bakarrik. Soziala eta ideologikoa
da ere. Kapitalismoaren sistima
guztia krisisean dago, gizarte-
aren prozesuak aurrera jarraitze-
ko egitura berriak behar ditu
eta... Baina sistima honek ere,
hil baino lehen aginalak egiten
ditu historia gelditzeko eta bere
egoera iraunkortzeko.

Familia, gizartearen funtsez-
ko egitura bezala, krisisean
dago. Eta kapitalak, krisisa bere
onerako gaintzeko, ideologi
aldetik ere bere indar atzerakoia
finkatzeko beharrean aurkitzen
da.

"Dirurik ez dago!" Etxeko
andreei deia, dramatikoa da
haien ezpainetan... "Emaku-
meentzat egiten dituzten aldiz-
kari eta irrati saioretan, milaka
kontseilu, norberak bere eskuz
egin ditzakeen gauzak eta nola
egin agertuz. Oso merke diren
hainbat plater egin omen ditza-
kegu, geure denbora hartzen
badugu... familia osoaren jantzi-
ak egitea oso erraza da, geure
denbora hartzen badugu... Etxe-
tik irten eta ordu erdi bat ibili
ondoren, azak bi pezeta merkea-
go saltzen dituen denda bat aur-
kituko dugu... Umeak, norekin
amarekin baino hobeto?

Lehen etxetik kanpo lan egite-
ko arazo larriena hau zen: gero
lanetik itzultzean, etxeko lan
guztiak geuk egin behar.

Orain, krisisa dela eta, ekono-
miak egin behar direla eta, etxe-
ko lana doblatu egin zaigu. Zar-
takoak alde guztietatik jasotzen
ditugu emakume bezala. Hau
etorkizuna, ez badugu gogor egi-
ten!

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

10 urte debekaturik egon ondoren
berriaz kaleral

Hiruhilabetez behin
argitaratzen da

Monografiak
Dosierrak
Azterketak
Kritikak
Gaurko gaiak

Laugarren zenbakiaren
gai nagusia:

EUSKAL KANTA BERRIA

Laugarren zenbakiaren lankideak:

A. Otaegi, J.
Altzibar, J.
Artze, J.A.
Azurmendi, J.
Beloki, J.R.
Intxausti, J.
Iriondo, Luis
Knör, G.
Kortaberria, P.
Legarreta, P.M.
Lete, X.
Pagola, Manolo
Zubizarreta, I.

JAKIN

500 pta. urtean. 175 alea

Èskabideak eta harpidetza:

Cuartel, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 65 11 06

SUKALDERAKO SALTSAK



Salade Niáoise (Entsalada Nizako erara)

6 lagunentzat beharko dituzu: Hiru katilu arroz, oliba beltzak edo eta berdeak, antxobiak (saloian), muskuilu¹ lata bat,² gatza, ozpina, ttipula ttiki bat, perrexila, ziape pixkat eta biperhauts beltza.

Lapiko sakon batetan ipin ur asko irakiten gaitza pixka batekin. Irakiten denean bota ezaiozu arroz guztia. Eduki honela 13 minutu. Atera eta iragaztontzi³ baten bidez ken ezaiozu arrozari ur guztia. Iturriko ur hotzaz garbi ezazu bertan (iragaztontzian) arroza. Ipin arroza platera zabal batetan hotz dadin.

Bota ezaizkiozu gainetik olibak, antxobiak eta muskuiluak.¹

Nola egiten da ozpin saltsa: Zuritu, zatitu, eta beratu⁴ ttipula ttiki bat, perrexil pixkat eta biperhautsa. Nahas ezazu guzti hau oliorekin ozpin pixka batekin eta ziape goilarakada ttiki batekin⁵. Eragin bizkor, pixkat loditu arte eta bota arroza gainera. Zerbitza ezazu hotz-hotza.

On egin.

¹ Moules, mojojoiak.

² Aukerapekoa.

³ Colador, écumoire.

⁴ Macerar, macérer.

⁵ Moutarde, mostaza = ziape.



A LETRAZ BUKATZEN DIREN HERRI-IZENAK

Lehen ikustaldi batetan, zera pentsa daiteke, *hallegia*, *a* letra bokale bat izanik, horrela amaitzen direnak, Bilbo izenaren antzera deklinatu behar direla. Baina arazoa ez da hori bezain sinplea.

Izenen amaierako *a* guztiak ez dira maila eta alorri berekoak; eta horren kausaz *a-z* bukatzen diren herri-izen propioak, ez dira guztiak era berean deklinatzen. Azterketa errazteko, bi multzotan banatuko ditugu *a* letraz bukatzen diren hitzak: 1) *A* organikoa dutenak. 2) *A* hori hitza mugatzeko erabiltzen dutenak (hots, organikoki ez dutenak).

1. *A organikoa dutenak*. Kasu honetan daude, adibidez, Donostia, Gernika, Nafarroa, Gipuzkoa eta beste asko. Izen hauetako bukaerako *a* letra, izenaren beraren parte bat da eta ezin daiteke izenetik banan. Beraz, deklinabideko kasu guztietan organikoa da.

2. *Bukaerako a letra ez da organikoa*. Beste kasu batzutan, *a* batez bukatu arren, *a* hori ez da organikoa. Dirudienez, aintzinako izen arrunt baten era mugatu singularraren ondorio dirateke, eta arkaikotzat jo daitezke.

Hitz batez esateko, *a* hori artikulua arkaikoa daiteke, eta horregatik, herrien izen hauk izen arrunt gisa deklinatzen dira. Deklinabidean, *a* hori desagertu egiten da kasu batzutan. Hurrengo koadroan horrelako izen bi *etxe* hitzaren deklinabide mugatu singularrarekin konparatzen dira, eta, bide batez, Donostia hitzaren deklinabidea ere jartzen da. Kasuak, lehengo koadrokoak dira.

Ikusten denez, lekuzko kasuetan desberdintasuna ageri da. Deklinabide hau bizirik dago hizkuntza mintzatuan, Bizkai aldean behintzat. Horregatik hitz horik salbuespen modura tratatu behar dira hizkuntza idatzian ere; horrela uste dut nik bederen.

Horrelako izenak erdaretan ere agertzen dira. Adibidez: La Rochelle, La Bastille, El Escorial, Laguardia, Labastida, La Rábida,... Ez da, ba, arrazirik, gure artean ere bat baino gehiago aurkitzea.

HERRIEN IZENEN DEKLINABIDEAZ

(2)

A organikoa

Donostia
Donostiak
Donostiari
Donostiaren
Donostiarekin
Donostian
Donostiako
Donostiatik
Donostiarra

Deustua
Deustuak
Deustuari
Deustuaren
Deustuarekin
Deustuan
Deustuko
Deustutik
Deustura

A ez-organikoa

etxea
etxeak
etxeari
etxearen
etxearekin
etxean
etxeke
etxetik
etxera

Bizkaia
Bizkaiak
Bizkaiari
Bizkaiaren
Bizkaiarekin
Bizkaian
Bizkaiko
Bizkaitik
Bizkaira

Nola jakin daiteke, bukaerako *a* famatua organikoa den ala ez? Zer esanik ez, azterketa sakonagoak egin behar dira eta gero Euskaltzaindiak argitaratu egin behar dira ondorioak, euskal idazleok zer egin jakin dezagun. Bitartean, X. Kintana eta J. Tobarren hiztegian zetxobait markatzen da gertakari hau, Iruñe(a), Bizkai(a) eta Deustu(a) idazten denean, nolabait *a* hori organikoa ez dela adierazten delarik. Hala ere, izen gutti ageri da. Bestelakoren batzua aipatzeko, Azpeiti(a); Azkoiti(a), Ermu(a) eta Foru(a) ere era berekoak direla esan daiteke. Dena den, arazo hau oraindik guztiz argitzeko eta zehazteko dago. Ea noiz ditugun Euskal Herriko herri guztien zerrendak; oker ez banago, Euskaltzaindia lanean ari da helburu horrekin.



HERRI-LAGUNTZA

Adiskidea,

Bere bizi-nahian, gure Herriak darabilen gudu luze, dorpe eta bortitzean, gora behera asko izan dateke. Jasateko gehienak, hegoaldeko haurr dek jasan dituzte orainarte; eta azken urte hauetan, "Anaiarte" bezalako batasun batek zerbait laguntza egin die.

Gaur bada —eta zernahi gertaturik ere oraingo bozkaldien ondotik— ba dirudi iparraldi hontan berean bazterrak berotzen ari direla: Frantziako gobernu eta haren gizonak alde batetik, euskaltzale mota guztiak bestetik, gero eta gehiago aihur dira elkarri. Euskal-Herria kinka gaiztoan, eta menturaz gal-zorian sentitu dugunek, zerbait egin nahi dugu halabaina gure Herria herstura hortatik ateratzeko. Batzu legez eta moldez ari izan gara gure deia entzunarazi beharrez. Baina herritar asko, beste biderik hartu nahiz dabil, ezinbestez. Horiek oro buruberokeriak daukate, berak gustura bizi direnek, eta euskal-minik ez duten guztiak. Geldirik ez dauden guztiak behar omen dute zentzatu, hezi, gazitu eta berdin preso sartu.

Ez doa berehala trenkatzerat horrelako eztabaida, eta ba dakarzke kasu mingarriak. Ba ditugu-eta jadanik bizpalau, aipatzea merezi dutenak. Hona behin Jean Louis Davant, euskaltzale ohoragarriaren kasua, berak hemen agertzen diguna. Horra ere bestela, Xan Marguirault, donibandar gaztearena: Makur ibili bada ere, zuzentasuna bederen hartzen du, eta gizon orori zor zaion errespetua. Ba dateke oraino besterik.

Horra zergatik proposatzen dizuegun Herriaren alde-rako gudu Herriaren laguntza hartzen dutenen alde, batasun bat moldatzea, ikuspegi guzietako euskaldunei zabaldua. Gutarteko eztabaida ideologikoetan sartu gabe ekar liezaioke behar-rean dagoen herritarrari, hartzen duen herri-laguntza.

"Herri-laguntza" hortan parte hartzerat zaudenetz erraguzu.

Anaitasunako zuzendaria,

Aldalur gudariari gertatu zaionak argiki erakusten du gure manatarrien egitate maila guzietan:

1) "Bazter mintzainen" irakastea legezkoa dugu "Deixonne" legeak finkaturik, jadanik 1951-ean.

Konda errax da lege hori izanez euskara ikasi dutenen nombrea eskolan. "Bazter kultura" horiek begietako purruska aski baitute.

2) Lur sal-erosketen merkatuan ere halaber: Safer hori egin da laborariendako, noski: lekuan tokika nola ari den argi dago. Laborari tipiek ez dute abantail handirik. Askotan haien kontra ere ari baita, legea laborarien kontra aplikatuz.

3) "Geneve-ko hitzarmena": Aldalur bezalakoentzat egin da. Hitzarmen hortan Frantzia engaiatzen da iheslari politikoen onartzera.

Baina, egiazki, zer gertatzen da? Hitzarmen hori ala tu berdin dateke; Aldalurrek ez du abokat baten ikusteko ahalik ukan, berehala fueratua izan da, eta noren eskuetan ezarria?

Hemen ere, ittipiak petzero, iduriz legea haien alde, baina deus ez egiten ahal.

Orduan, zer egin guk? Gutierrez, dakizkigunak erran goraki. Europako herri batuek akordio bat pasatu dutela politika borrokarien elgarri pasatzeko. Akordio horrek "Geneve-ko hitzarmena" osoki indargabetzen duela.

Ezker berri

Hemen bidaltzen dizuegu horritxo hau zuen aldizkarian argitaratzeko.

Euskaraz, egunero entzuten ari garen hitzak hauexek dira:

"Ez dugu komentzi handirik alfabetatzeko eta euskalduntzeko, bai toki arazoengatik eta bai ordu arazoengatik.

—Hemen behar dena zera da: Jende profesionalizatu."

Entzutetik eta hitzegitetik aspertu direnez gero, gazte batzuek, ideia hau praktikara eramatea erabaki dute. Praktika honek nahi du esan gazteok ordu eta toki komentziok eskaintzeko asmoz daudela.

Edozein maila emateko prest daude, hots, E. I; E. II;

GETXOKO HERRI BATUAREN BIGARREN AGIRIA

Gure eginkizun argiarekin jarraituz, hurbiltzen gataizkizun berri gure azken mugimenduen berriak eduki ditzazun.

Jakingo duzunez, HERRI BATUA, astero biltzen delarik, asanblada baten itxura aukeratzea onhartu du, eta horrela bultzatzen dituzten erabakiek guztien artean hartzen dira.

Udal alternatiba egoki bat prestatzeko erdibiturik gaudela lan komisio batzuetan. Hauk dira: Kandidatoak, Udal egitaraua, Harremanak beste taldeekin, Hauteskunde teknikak eta propaganda, Legalitateen arazoak eta Gestioa.

1978ko Iren 20 egunean, HERRI BATUAK laboratu eta onhartu zituen datozen utziezinezko eta ukaezinezko puntua:

1. EUSKADI zalantzagabeko errealitate bat da, kontinentar eta penintsular geographik ingurua batekin eta aspaldidanik ezagutzen diren azpil herrialdeez egin. Halaber onhartzen dugu historikoki euskaldun ziren lurraldeak, eta orain bere borondateaz Euskadin sartu nahi dezatela.

2. Bere hizkuntza Euskara da, benetazko birezartze bat egiteko ahalegin handienak egingo dira eta ahal bezain laster elebitasun egoera batetik pasatuko da.

3. Euskal Herriaren bandera IKURRIÑA da. Naziozko ikur baita gure herriak lortu duena borroka luze bat eraman ondoren.

4. Baieztatzen dugu ere Euskal Herriaren eskubidea here buruaren inha izateko.

E. III; Mintza Praktika; Alfabeta izango dira, hamarrekota gehienez. Hortarako maiatzeko lehenbiziko bi aste, inskribapenak egiten iharatzen dute, bere bulegoan. Kezkatuak zaretanok jo ezazue helburu de horretara: Kale Nagusia 28; 1.goa (Aurrezki Kutxa Municipalen ondoan), Ordiz.

Bulego orduak:

Goizez: 11tatik - 12 1/2tera. Arratsalde: 6etatik - 8tera.

Bulego egunak: Maiatzeko lehenengo bi asteetan, larunbata kenduz gero, edozein egunetan.

Eskerrik asko.

azkenean aukeratzeko zuzen izango diren beste munduko herriekin eduki behar dituen harremanak.

5. Halaber, nazional askatasuna, lotuak joan behar direla nahi ta nahiez kontsideratzen dugu.

1978ko Iaren 27an, Herri Batuek erabaki zuen aho batez, Altsasuko Mahaiarekin kolaboratzea. Gero 1978ko 2aren 10ean onhartua izan da Altsasuko Mahaiak proposaturiko koalizioak hauteskundeak begiratu, onhartzea, baina erabakizun hori izan behar da Euskadiren onerako eta ezker abertzaleen batasuna lortzeko.

Hortaz, planteamenduen oinharri honetan aski definituak geratzen gara iste dugu. Sintesi batetan hauxe izango litzateke gure ideologik eskema:

— Nazioari buruz, independentzia eta sozialismoa.

— Udalari buruz, asanbladen sistema.

— Politikari buruz, ezker abertzalea.


Altsasuko Mahaiaren dau den alderdiekin, harreman edukitzean hasi dugu, gure helburu da gure herrirako udal egitarau egokiena egitea.

Apotxatzen dugu parada hau zure sarrera eskatzeko gure elkartean, helburuak interesgarriak ikusiko bazenu.


Laster, herriko hauteskundeen eskualdetan egingo ditugu herriko batzarrak gure ustekizunak herriko jende artean nola erortzen diren jakiteko.

GETXOKO HERRI BATUAREN ASANBLADA

GURUTZEGRAMA



Agilea Larry Frank



Agilea Larry Frank

11. ZENBAKIA


LUZETARA

1. Euskal eskultore.
5. Euskal soldadu.
9. Taberna
10. Barne gerrako gotorleku.
13. Madaria.
16. Euskal pertsonaia mythologiko.
17. Inghaterrako kathedrale-hiri.
19. Biago, lo kulurka (gastelaniaz).
20. Badia.
22. Euskal talde politiko.
23. Abel-en anaia.
25. Ez ukitu! (zuberoeras).
27. Intsektu gose.
28. Kal (2 hits).
31. Karta joko.
32. "Orain ohera ____, bihar arte aie"
33. Tindagai urdin.
34. Gehiegi.
36. Atera, irten.
37. Kalte egin (paper edo tela).
40. Haur abandonatua.
42. Aintzinako Euskal Herria.
43. Nera goazen goizean.
44. Euskal Biblia bizkaieraz-en egilea.
47. Osaba (gastelaniaz).
48. Librean.
49. Euskal euria.

GOITIK BEHERA

1. Gipuzkoako mendi.
2. Belauna gainean.
3. Zodiakoaren seinuetarik bat.
4. "Nire Aitaren Etxea Defendituko ____".
5. Alemaniar matematikari edo unitate magnetiko.
6. Ardi, artsain; txerri, ____.
7. Hozkailuak non egiten diren.
8. Burdin erakartzen duten tresnak
11. Musulmanen hilabete sakratua.
12. Denok ____ gara.
14. Keria.
15. Hartu, lotu.
18. "____ bizi naiz ni bakean".
21. Huraxe (bizkaieraz).
24. 1977-ko urtarrilan agertu siren udaletxeetan.
26. Luminiskente.
29. Partikula kargatua.
30. Jon Onatibia, tristulari; Leon Bilbao, ____.
31. Fagor edo Trimist, e.b.
33. ____-en-Provence edo ____-la-Chapelle.
34. Haizea-ren kanta bat (2 hits).
35. Etxeko sarrera.
38. Borta.
39. ...eta idi, ____ (ikus 6).
41. Oilo-jale.
45. Eguski (zuberoeras).
46. Gaixorik.

KALEKO



GALERIA RECALDERE

ALDA. DE RECALDERE, 35 - BILBO-11 - TELEF. 444 03 62 • URTE 1 • N.º 7 • IRANBURUPENA: 1978. ENO LORAILLA 4.ª AN

R. ZURIARRAIN



ZILARREZKO KRABELINA


Itzalit zaku Charlotte Shoouroodt 74 urtetan eta urriaren 20an, jende osta bat lagun, segitu dugu bere azken egoitzarat. Irakasle ohi zen eta arrabots haundirik gabe iragan du bere bizia; mintza erraza zen eta orotaz maiztatua; haurrentzat bazuen emodio berezi bat. Larraldeko Elisalde Nagia pausatutako zaku eritasun labur baten ondorioz 68 urtetan, emazte ballosa eta maitagarria bazuen pena frango jasanik bere bizian eta bereziki seme bat

Okerrak non dauden seinalatzeaz aspaldion aspeturik gaudenez gero, eta, bestalde, tontorik txarrenak ikasi nahi ez dutenak delako horretaz gogoratutik, hemendik aurrera, aparteko kasuren bategatik ez bada behintzat, gehiago astabelarririk ez ematea erabaki dugu. Urregorria, gainera, gero eta garestiago dago, eta ANAITASUNAREN gastu urritze honetan, ez zen gisa, papera eskasagoa denean, guk urrea parra hortik zehar erregalaten ibiltzea.

Hemendik aurrera, beraz, ZILARREZKO KRABELINA emango ditugu, opari apalagoak, baina, hori bai, ohore handiagokoak. Zilarrezko krabelinok —izan, Telesfororen krabelin gorri haik berberak dituk, irakurle, baina purpurinaz pintaturik!— euskararen alde-

ko edozein ekintza publiko eta ageriri eskainiko dizkiogu, hura goraiatzeko asmoz.

Eta, hasteko, bihoakio gure lehen krabelina GALERIA RECALDEREri, berak ateratzen duen artezko aldizkariagatik. Errebista horretan, Bizkaiko arte-aretoen berri dator, artistekiko elkarrizketa eta zenbait aldizkariren arte-artikulu hautatuak ere bai. Galeria Recalderen aldizkari hau, bestetik, bikoitza da, hau da, euskaraz eta erdaraz argitaratzen da, baina ale ezberdinetan, bata osorik euskaraz eta beste erabat erdaraz. Hizkuntza aldetik, derragun bidena bar, oso ongi dator, euskara jator, atsegin eta batuar Ekintza txalogarria benetan.



Bai, Jauna, bai: Fisika Euskaraz.

Nork esan du euskaraz ezin
esplika daitekeela nuklear fisikarik?
José Ramón Etxebarriak,
Bilboko Unibersitateko irakasle honek,
estudiante euskaldunei, fisikari buruzko
mintegiak euskara soilean ematen dizkie.

Eskola normalerako ikastoharrak ere
euskaraz hutsean prestatzen ditu.

EUSKARA zientzia lanerako ere
hizkuntza egokia bait da.

Euskaldunok bezain egokia, noski.

Euskara indarberritzearen alde
CAJA LABORALEko gizarte ekintza saila.



CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE AURREZKIA

EUSKADI KUTXA

Gipuzkoa besterik ez dugu gogoan hargatik Probintzial da gure izena.



Gure probintziaren aurrerabidean gero eta lankide sutsuagoak izateko prest gaituzu: bai nekazaritzan, bai industrian, bai merkatalgoan, bai komunikabideetan,... edozein alorretan. Gipuzkoan bizi maila goratzeko bidea gerta litekeen guztian.

Probintzial izena daramagu eta gipuzkoar aurrerabidearen alde ari gara ahaleginetan beti ere.



GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA